


MEMORIA



2

0

1

6



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos

Agencia Vasca de Protección de Datos - Datuak Babesteko Euskal Bulegoa
Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 71, 3. solairua
01008 VITORIA-GASTEIZ
avpd@avpd.eus
www.avpd.eus

MEMORIA

ISSN: 2253-9506

Aldizkakotasuna: urtero

LG: VI 312-2006

[Lan hau Creative Commons da](#)



Aitorpena (by)

Aske zara:

- lan hau kopia, banatu eta jendaurrean hedatzeko
- Bernahasteko - lana egokitzeko
- lan hau merkataritza xedeetarako erabiltzeko

Baldintza hauetan:

- Aitortu - Lanaren kredituak aitortu behar dituzu, egileak edo baimendunak zehaztutako eran (baina ez aditzera eman ez haien babesaren duzun edo haiek obraren erabilera hori babesten dutenik).

Informazio gehiago: <http://creativecommons.org/licenses/by/3.0/es/legalcode.es>



AURKIBIDEA

ORRIALDEA

1.	AURKEZPENA	5
2.	KONTSEILU AHOLKU-EMAILEA.....	7
3.	AHOLKULARITZA EGINKIZUNA.....	9
4.	KONTROL EGINKIZUNA.....	25
5.	EUSKADIKO DATUAK BABESTEKO ERREGISTROA	39
6.	DATU BABESARI BURUZKO AZTERKETA SOZIOLOGIKOAK.....	46
7.	PRIBATUTASUNAREN BALIOAREN ETA AGENTZIAREN JARDUEREN ZABALKUNDEA	48
8.	EZAGUTZA TRUKATZEKO ETA PRESTAKUNTZAKO JARDUERETAN PARTE HARTZEA	53
9.	BESTE ADMINISTRAZIO, AGENTZIA ETA ERAKUNDE BATZUEKIKO HARREMANAK ETA LANKIDETZA	57
10.	BARNE KUDEAKETA.....	59
	DATU PERTSONALAK BABESTEKO ERREGISTROAREN ZIFRAK	67
	AHOLKULARITZA ETA IKUSKARITZA UNITATEARI BURUZKO ZIFRAK	81
	AURREKONTU EXEKUZIOARI BURUZKO DATUAK.....	83





1. AURKEZPENA

Aurtengo jardueren Memoria hau egin eta onartzeko arrazoia, eta Eusko Jaurlaritzari helarazteko motiboa ez da bakarrik Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko Legearen agindua betetzea, baita ere da, baliatzea Memoriak ematen duen aukera, Agentziak burututako jardueren berri emateko, modu sistematikoan, euskal herritarrei eta Euskadiko administrazio eta erakunde publikoei; hain zuzen ere, ahalik eta modurik eraginkorrenean ziurtatzeko pertsonak guztiok baliatu dezakegula, bakoitzaren eskumen esparruan, norberaren pribatutasuna babesteko oinarritzko eskubidea.

Aurreko ekitaldietan bezala, 2016ko Memoriak ere zehaztasunez azaltzen du Agentziak egin duen lan guztia, erakundearen beraren izateko arrazoiaren oinarrian dagoen helburua lortze aldera. Horregatik, memoria atalka egituratuta dago, horrek asko errazten duelako Agentziako unitateek urtean zehar egindako jardura guztien jarraipena egitea gaika eta modu kronologikoan. Gainera, hainbat laburpen-koadro estatistiko ere jaso ditugu bertan, jardura-esparru bakoitzean lortutako emaitzak ikusteko.

Memoriak agerian uzten du igo egin dela Irizpenen kopurua. Irizpenak dira teknikoki zailtasun handia duten kontsultak erantzuteko egin ohi ditugun txostenak. Bestalde, babes-eskabideak ere gehiago izan dira, eta igoera %27koa izan da, batez ere, ahaztua izateko eskubidea egikaritzeko egindako babes eskabideak. Era berean, salaketa kopuruak ere gorakada handia izan du, eta gorakada horrek agerian uzten du herritarrek gero eta kezkatuago daudela pribatutasunaz eta pribatutasuna babesteko interesa ere handituz doala. Legezketasun txostenen kopuruak, ordea, behera egin du, 3 gutxiago egin ditugulako. Horren arrazoia izan da 2016an euskal administrazio publikoen araugintza arloko jardura ere txikiagoa izan dela.

Horiez gain, ikusten da gehitu egin direla aurretiazko jarduketak eta igo egin dela euskal administrazio publikoei hasitako arau-hauste prozeduren kopurua. Arau-hauste gehienak deklaratu dira adostasunaren printzipioa urratzeagatik. Bestalde, aipatzeko modukoa da % 50 igo dela euskal administrazio publikoekin egindako aholkularitza bileren kopurua. Administrazioen betebeharrei buruzko hainbat gai aztertzeke bilerak izan dira.

Fitxategien Erregistroaren esparruan finkatu egin da egonkortzeko joera; eta horren adierazgarri da fitxategien sortze-tasa aldatze-tasaren azpitik egon dela. Eta inskribatutako fitxategi aktiboen kopurua apur bat jaitsi den lehenengo aldia izan da. Datu horrek adierazten du egoera "egonkorra" lortu dela gaur egun, "hazkunde begetatibo" txiki batekin. Era berean, aurten berezia izan den beste alderdi bat izan da foru aldundiek eta horien menpeko nahiz horiei lotutako sozietateek egin dutela ekarpen handiena, Fitxategien Erregistroan egindako inskripzioei dagokienez.

Baina, Memoria oso-oso izateko, ezin dira aipatu gabe utzi, batetik, 2016/679 (EB) ERREGELAMENDUA, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duena; eta,



bestetik, egin diren prestaketa-lan guztiak, Erregelamendua behar bezala ezarri ahal izateko, unea heltzen denean.

Horretarako, argitaratu bezain pronto, Agentziak Erregelamendua aztertzeke prozesu bati ekin dio, aurrera begira Erregelamenduak ekarriko dituen obligazioak behar bezala betetzen direla bermatzeko jarduerak identifikatzeko eta planifikatzeko. Hori dela eta, parte hartzen ari da Datuak Babesteko Espainiako Agentziarekin eta Datuak Babesteko Kataluniako Agintaritzarekin batera osatu duten lan talde batean. Lan taldea hainbat aldiz bildu da, eta bileren helburua izan da aztertzea Erregelamendu berriaren ezarpena eta ezarpenaren ondorioz egin beharko diren araugintza garapenak eta aldaketak.

Lan talde horri berariazko beste azpitalde bat gehitu zaio, segurtasun neurriei buruzkoa. Lan talde honen eginkizuna da aztertzea segurtasun neurrien esparruan Erregelamendu orokorrak ekarri duen ikuspegi berria. Orain arte egindako lanaren emaitza dira honako gidaliburu hauek: *“Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren Gida, tratamenduaren arduradunentzat”*, *“Tratamenduaren arduradunen eta eragileen arteko kontratuak egiteko jarraibideak”* eta *“Informatzeko Eginbeharra Betetzeko Gida”*.

Horrekin lotuta, Agentziako zenbait kidek hainbat zabalkunde eta prestakuntza jardueratan hartu dute parte, Erregelamendu orokorrak aitortutako eskubide berriak zertan diren azaltzeko herritarrei eta pribatutasunaren balioaren gaineko kontzientzia publikoa hedatzeko.

Amaitzeko, azpimarratu behar dugu 2016ko Memoriak jasotzen duen lan guzti hau, Agentziak aholkularitzaren esparruan nahiz kontrolaren esparruan egin duena, eta xehe-xehe dokumentatuta jaso dena, helburu eta asmo garrantzitsu batekin egin duela, hau da, balantze ponderatua egiteko, gardentasunaren printzipioak zehaztutako betekizunen artean eta, pribatutasunerako oinarritzko eskubidea baliatzeko orduan, gardentasunaren printzipioari jartzen zaizkion mugetatik eratorritako tentsioaren artean, ikusirik tentsioa era esponontzialean handitzen ari dela, gero eta teknifikatuagoa den eta bere eskubide demokratikoekiko zorrotzagoan den gizartean eta jarduera elektronikoetan oinarrituta egongo diren administrazio publikoetan.

Espero dugu agiri honetan argitaratutako datuak baliagarriak izatea irakurleek iritzi egokia izan dezaten Agentziaren eginkizun behinenaren lorpen mailaren gainean, kontuan izanda, Agentziaren eginkizuna dela bere eskumen esparruan bermatzea ondo ezartzen dela datu babesari buruzko araudia, benetan gauzatzeko pribatutasunerako oinarritzko eskubidea.

2017ko apirila

Margarita Uria Etxebarria
Zuzendaria



2. KONTSEILU AHOLKU-EMAILEA

Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 14., 16. eta 17. artikuluetan aurreikusitako Kontseilu Aholku-emailea Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren gobernu organo bat da, eta zuzendariari aholku ematea du xede.

Honako erakunde hauek ordezkaritza dute Kontseilu Aholku-emailean: Eusko Legebiltzarra, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra, lurralde historikoak, euskal toki erakundeak eta Euskal Herriko Unibertsitatea.

2.1. KONTSEILU AHOLKU-EMAILEAREN OSAERA

Hona 2016ko abenduaren 31n Kontseilu Aholku-emaileak zituen kideak, 2/2004 Legearen 16. artikuluaaren arabera:

<i>Aintzane Urquijo Sagredo andrea</i>	Lehendakaria. Santurtziko alkatea. Toki erakundearen arduraduna
<i>Margarita Uria Etxebarria andrea</i>	DBEBren zuzendaria
<i>Montserrat Auzmendi del Solar andrea</i>	Letratua. Eusko Legebiltzarraren ordezkaria
<i>Nieves Martínez De Antoñana andrea</i>	Araubide Juridikoaren zuzendaria. Lehendakaritza Saila
<i>Ibon Oñate Zamalloa jauna</i>	BFaren Modernizaziorako, Gobernamendu Onerako eta Gardentasunerako Kabineteko burua. Lurralde historikoen ordezkaria
<i>Eduardo Jacob Taquet jauna</i>	Ingeniaritza Telematikoko irakasle titularra. Informatika Arloa. Euskal Herriko Unibertsitatea
<i>Iñaki Esparza Leibar jauna</i>	Zuzenbide Prozesaleko katedraduna. Oinarrizko Eskubideen Esparrua. Euskal Herriko Unibertsitatea
<i>Joseba Etxebarria Goikoetxea jauna</i>	Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren idazkari nagusia.

Kontseiluaren lehendakari kargua txandakakoa da eta urtero aldatzen da, Kontseilu Aholku-emailearen Antolaketako eta Funtzionamenduko Arauen 4.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorruta

2.2. KONTSEILUAK EGINDAKO BILERAK

Kontseilu Aholku-emaileak ohiko bilera bi egin ditu: bata maiatzaren 24an eta bestea abenduaren 19.



Bileretan gai hauetaz hitz egin zuten:

Maiatzaren 24ko bilera

- Zuzendari berriaren izendapena
- 2015eko Memoria
- 2016an egindako jardueren txostena
- 2016 amaitu bitarteko jardueren aurreikuspena
- Irizpen garrantzitsuenak
- DBEBren sariei buruzko informazioa
- Egin beharreko azterlanak
- 2015 eta 2016ko aurrekontuei buruzko informazioa
- Plan Estrategikoa


Abenduaren 19ko bilera

- Lehendakari berriaren izendapena
- 2016an egindako jardueren txostena
- Irizpen garrantzitsuenak.
- Egin beharreko azterlanak
- 2016ko aurrekontuei buruzko informazioa
- Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra
- Plan Estrategikoa



3. AHOLKULARITZA EGINKIZUNA

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak, aholkularitza eginkizuna betetzeko, administrazio publikoek, erakundeek eta korporazioek edo pertsona fisiko nahiz juridikoek Bulegoaren ezarpen esparruan dauden datu pertsonalen tratamenduei buruz egiten dizkioten galderei erantzun behar die.



Kontsultak postaz, posta elektronikoz, faxez, telefonoz eta modu presentzian egin daitezke; baina, oinarritzko eskubidearekin zer ikusi handia dutenak eta pertsonak, administrazio publikoek eta bestelako erakundeek zenbait gairen inguruan Bulegoaren iritzia gainera erantzun formala

eskatzen dutenak, Bulegoaren irizpen bidez ebazten dira.

Era berean, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak, aholkularitza eginkizuna ere baduen, otsailaren 25eko 2/2004 Legea garatzen duten xedapen orokorren proiektuen gaineko txostenak ere egin behar ditu nahitaez; bai eta administrazio publikoen iritzia menpe jartzen diren xedapen orokorren proiektuei, hitzarmenei eta bestelako tresna juridikoei buruzkoak ere. Hori guzti hori egiten du datu pertsonalak babesteari buruzko araudira egokitzen direla ziurtatzeko.

3.1. TELEFONO BIDEZKO ARRETA, ZUZENKO ARRETA ETA ARRETA TELEMATIKOA

DBEBk herritarrentzat eta gainontzeko administrazio publikoentzat gertukoa eta eskuragarria den administrazio ereduak izan nahi du; eta, horretarako, hainbat komunikazio-kanal jarri ditu horien denek esku, informazioa edo irizpide juridikoa ala teknologikoa eskatu nahi badute, erabil ditzaten, datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidea uki dezaketen edozein gairen gainean galdetzeko. 2016an Agentziak 800 aholkularitza eskabide inguru jaso zituen telefono bidezko, zuzeneko arreta eta arreta telematiko bidezko kanalen bitartez. Kontsulta gehienak telefono bidez jaso ziren, bigarren tokian posta elektronikoz jasotakoak daude, eta hirugarren tokian bertatik beratara zuzenean egindakoak.

Batez ere herritarrak dira kanal anitzeko arreta zerbitzuaren erabiltzaileak (% 70), segidan administrazio publikoak datoz. Enpresek eta pribatutasunaren esparruko profesionalek erabiltzen dute gutxien.

Kanal anitzeko sistema erabilita, erabiltzaileak berehala jakin dezake Agentziak zer uste duen, pribatutasuna dela eta, erabiltzaileari interesatzen zaizkion gaien gainean.



Galdera zehatzei buruz, esan behar dugu herritarrek zalantzak dituztela zenbait datu tratamenduren zilegitasunari buruz, eta Agentziari galdetzen diote; askotan datu pertsonalak lagatzea edo argitaratzearen inguruko zalantzak dira; beste batzuetan, sarritan, informazioa eskatzen dute jakiteko nola egikaritu datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak. Eskubideak aipatuta, datuei aurka egiteari eta ezerezteari dagokienez, azpimarratzeko modukoa da ahaztua izateko eskubideak egikaritzeko eskabideen igoera esponentziala.

Aparteko aipamena merezi dute bideo zaintzako gailuen edo datu biometrikoen irakurgailuen bidez egindako datu tratamenduek, bereziki, hatz-markan oinarritutakoek. Teknologiaren garapenak era horretako gero eta gailu gehiago ekarri ditu eguneroko bizitzara, eta gailu horiek, pertsonen pribatutasunean izan ditzaketen ondorioez hausnartzeko astirik gabe, sartu dira eguneroko bizitzan.

Era berean, azpimarratu behar da administrazio publikoek Agentzian jarri duten konfiantza, batez ere, toki erakundeek agertu dutena, laguntza eskatuz behar bezala uztartzeko informazio publikoa eskuratzeko eskubidea eta datu pertsonalak babesteari buruzko eskubidea. Eta Agentziak ahalegina egin du, egin dizkioten zalantzak argitzeko ez ezik, eragile juridikoari ponderazio irizpideak emanez, bi eskubideen arteko tentsioa behar bezala ebazteko.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak azken puntu horri buruz zabaldu nahi izan duen ideia da datu babesa ez dela traba bat informazio eskubiderako, muga bat baizik; hau da, datu babesa era ponderatuan ezarritik gero, informazio pertsonala argitaratzean edo komunikatzean gehiegikeriak ekiditea lortuko da, eta gardentasuna ez dadila bihurtu datuen erakustaldi hutsa.

Horrez gain, 2016an beste gai hauei buruzko hainbat kontsulta argitu dira: datu tratamenduak hautaketa-prozesu edo norgehiagoka-prozeduretako izapideetan, biztanleen erroldako datuen tratamenduak laguntzen kudeaketetan eta datuen kalitatearen printzipioa ezartzeari buruzkoak. Gainera, oraindik kezka eragiten dute osasun datuen edo kolektibo ahulenen datuen tratamenduek, esate baterako, honako hauek: adingabeak eta zaharrak, genero indarkeriaren biktimak eta gizarte-bazterketako arriskuan dauden pertsonak.

Amaitzeko, azpimarratu nahi dugu euskal administrazio publikoak ohartu direla Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak —Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua— aldaketak ekarriko dituela, eta horien inguruko zalantzak agertu dizkiote Datuak Babesteko Euskal Bulegoari.

Kanal Anitzeko Zerbitzu honetaz gain, Agentziaren web orrian maiz egiten diren galderen eta erantzunen zerrenda bat dugu (FAQ). Datu pertsonalak babesteari buruzkoak dira, eta DBEBri behin eta berriz egiten dizkioten galderei buruzko informazioa eskuratzeko baliogarriak dira.

3.2. IRIZPENAK


DBEBk irizpen bidez ebazten ditu datu babesari buruz jasotzen dituen galdera konplexuak. Agentziak aholkularitza lana eskaintzen du otsailaren 25eko 2/2004



Legearen 17.1 n) artikulua xedatutako aholkularitza eginkizuna betetzeko, eta administrazioei eta pertsona fisiko zein juridikoei eskaintzen die, baina:

- Kotsultaren gaiak 2/2004 legearen 2.1 artikuluko erakundeek edo administrazio publikoek sortu edo kudeatutako fitxategietan jasotako datu pertsonalen tratamenduei buruzkoa izan behar du.
- Planteatutako gaiak zehatza izan behar du, eta horrek esan nahi du gutxienez zalantzaren iturburuaren deskribapena egin beharko dela, eta Bulegoak irizpidea behar bezala eman ahal izateko behar duen informazioa aurkeztu beharko dela.

2016an zehar udalek egin zituzten kontsulta gehienak, eta udalen atzetik foru aldundiek, eta azkenik EAEko administrazio orokorrak. Horiez gain, beste entitate eta erakunde publiko batzuek ere jo zuten Agentziara, eta handitu egin zen guregana jo zuten herritarren kopurua ere, Agentziaren irizpidea eskatzeko, datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidearekin lotutako hainbat gaitan.



Egin zizkiguten kontsultak direla eta, alde batetik, ikusi da asko izan zirela laguntza publikoen arloko kontrolarekin zer ikusia duten datu tratamenduei buruzkoak; eta beste alde batetik, sumatu dugu kezka handia dagoela datuak babesteko eskubidea betetzeari buruz Gardentasunari, Informazioa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak eskatzen dituen publizitate aktiboaren kasuen esparruan.

Halakoetan, Agentziaren iritzia da datu tratamendua legitimatzen duen lege oinarria egoteaz gain (ukituaren adostasuna ala lege gaikuntza), proportzionaltasun irizpideak ere ezarri beharko direla, hau da, bakar-bakarrik tratatu beharko direla lortu nahi den helburu legitimoa betetzeko nahitaez behar diren datu pertsonalak.



3.2.1. Irizpen esanguratsuenak

Irizpenak eskuragarri daude Agentziaren web orrian (www.avpd.eus).

- **Obren lizentzien gaineko informazioa lagatzea udalerriko zenbait biztanleri (CN15-025)**

Zilegi da udalak herritar bati lagatzea obra lizentziak izapidetzeko espedienteetan dauden datuak, Lurzoruari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak baimentzen duelako. Baina, DBLOren 4. artikulua finkatutako mugak errespetatu behar dira.

- **Diru-laguntzen onuradunak aldizkari ofizialean argitaratzea. Gardentasuna eta publizitate aktiboa (CN15-028)**

Kontsultaren gaia da ea zilegi den Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea elkarte batek banatutako diru-laguntzen onuradunen identitatea. DBEBk ez du eskumenik kontsulta hau erantzuteko, elkarteak bere eskumen esparrutik kanpo daudelako. Edozelan ere, eta, laguntzeko asmoz, honako jarraibide orokor hauek eman genituen: 1.- DBLOren ezarpen eremuan pertsona fisikoak daude; ez daude, ordea, pertsona juridikoak eta banakako enpresarioak. 2.- Diru-laguntzen publizitateari dagokionez, Gardentasunari, Informazioa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak publizitateari eta gardentasunari buruz ezarritako betekizunak bete beharko dira; hain zuzen ere, elkarteak emandako diru-laguntzak Bizkaiko Foru Aldunditik datozen funts publikoen kontura eman direlako.

- **Udal bati lagatzea garbiketa zerbitzuaren enpresa esleipenduneko langileen datu pertsonalak (CN15-030)**

Kontratuaren administrazio baldintzen pleguan eta baldintza teknikoen pleguan jasota dago datu horiek laga egin behar direla, eta Sektore Publikoaren Kontratuen Legeak ere gauza bera dio, kontratua behar bezala gauzatzen dutela jakiteko funtsezko datuak direlako; baina, datuen kalitatearen printzipioa ere bete egin beharko da.

- **Udal sozietate publiko batek datu pertsonalak atzitu eta erabili nahi izatea etxebizitza hutsen errolda egiteko (CN15-031)**

Udal sozietate publiko honek hainbat helburu ditu, eta horietako bat da “besteren etxebizitza hutsak alokatu edo erabiltzen utz daitezela sustatzea”. Gainera, sozietatea Eusko Jaurlaritzaren agente laguntzailea da merkatu libreko etxebizitzaren alokairuaren bitartekaritzarako (ASAP Programa). Sozietate horrek galdetu zion Agentziari ea sor zezakeen etxebizitza hutsen errolda bat (erroldako datuekin eta katastroko titulartasun datuekin), Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legeak xedatzen duenaren arabera. Baina, etxebizitza hutsak ekartzeko agente laguntzailearen funtzioak ez du sozietatea gaitzen etxebizitza hutsen errolda bat sortzeko, 3/2015 Legearen 63. artikuluan jasotako etxebizitzaren erabilera desegokia frogatzeko baliabideak erabiliz (erroldako eta beste erregistro publiko batzuetako



datuak, horniduren ohiz kanpoko kontsumoak). Etxebizitzen erabilera desegokiak egiaztatzeko balio duten erabilera desegokia frogatzeko baliabide horiek, eskumena duten administrazioak (udalak edo etxebizitza-gaietan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak) gaitzen dituzte jenderik gabeko etxebizitza deklarazioak egiteko, baldin eta legeek agindutako betekizunak betetzen badira eta Eusko Jaurlaritzaren jenderik gabeko etxebizitzen erregistroan inskribatzen badituzte. Udalek jenderik gabeko etxebizitzen deklarazioak hasi eta ebatzi ditzaketenez, hainbat datu pertsonal bildu eta tratatu beharko dituzte (jenderik gabeko etxebizitzen errolda datuak, etxebizitza horien titulartasunari buruzko datuak eta abar), eta, beste ezer baino lehen, titulartasun publikoko datu pertsonalen fitxategi bat sortu beharko dute, DBLOn eta otsailaren 25eko Eusko Legebiltzarraren 2/2004 Legean xedatutakoaren arabera.

- **Toki erakunde baten gardentasunaren atarian zenbait datu argitaratzea (CN15-032)**

Toki erakunde batek proposatutako publizitate aktiboaren hainbat kasu aztertu dira: ordainsariak argitaratzea, interesen aitorpenak, bileretako parte hartzeak eta abar. Eta jakin nahi zuten ea datu horiek argitaratzea babesten duen legerik dagoen. Bukaerako gogoetatzat adierazi zen atzipen eskubidearen bidez, eta alde zuretik ponderazioa eginda, badagoela aukera publizitate aktiboaren menpe ez dagoen informazioa atzitzeko.

- **Udal ogasunarekin premiamenduzko bidean zorrak dituztenen datuak lagatzea zinegotziei (CN15-033)**

Zerga datuak izaera erreserbatua dute, eta zergei buruzko foru arauak finkatutako kasuetan baino ezin dira laga. Udaleko zinegotziei ezin zaizkie zerga datuak laga, ukituen adostasunik gabe, hala xedatzen baitu DBLOren 11. artikulua.

- **Biztanleen udal erroldako datuen tratamendua, bizikidetza ziurtagiriak ematean eta administrazio publikoetan elkarreragingarritasuna garatzean (CN16-001)**

Bizikidetza ziurtagiriak emateko, eskatzaileaz gain, etxebizitza berean bizi diren gainontzeko pertsona guztien adostasuna behar da. Erroldako datuak elkarreragingarritasun tekniken bidez transmititzeari dagokionez —herritarrek administrazio publikoen eskuetan dauden datu eta dokumentuak ez aurkezteko duten eskubidea bermatzeko—, ukituaren adostasuna da datu tratamendua egitea gaitzen duen titulua, eta administrazioak ezin izango du eskumenik aldarrikatu. Adostasuna eskatzea entitate eskatzailearen ardura izango da.



- **Doako laguntza juridikoa, bizikidetza errolda-ziurtagiri kolektiboa eta adostasuna (CN16-002)**

Errolda egiaztagiri edo bolante kolektiboa eskuratzeko, etxebizitzan inskribatuta dauden pertsona guztien adostasuna beharko da. Adostasunik ezean, udalak banakako errolda egiaztagiriak egin ahal izango ditu, eta bertan adierazi zenbat pertsona dauden inskribatuta etxebizitza berean. Administrazio publiko eskumendunak familia-unitateko kideen datu pertsonalak bildu eta tratatzeko, kide guztien adostasuna beharko du arau orokor moduan, eta tratamenduaren arduradunaren eginkizuna da ukituaren adostasuna badagoela frogatzea, zuzenbidean probatzat hartzeko onartzen den edozein bide erabilita.

- **Mankomunitate batek bertako udalei emandako laguntzen onuradunen identitateari buruzko datuak lagatzea udal horiei (CN16-003)**

Pertsona batek gizarte zerbitzuak jaso eta pertsona hori nor den esatea, eta pertsona horrek zein zerbitzu jaso duen edo jasotzen duen esatea datu pertsonalak lagatzea da. DBLOk datu pertsonalak babestea du helburua, eta, beraz, datu horiek babestutako datuak dira. Hortaz, kontuan hartuta mankomunitatea dela arduraduna eta datu-lagatzailea ere bai, mankomunitateak datu pertsonal horiek komunikatu ahal izateko pertsona onuraduna bizi den herriko udalari, udala mankomunitatekoa delako, nahitaez bete beharko du DBLOren 11. eta 21. artikuluetan jasotako erregimen orokorra. Artikulu horietan jasotako erregimena ezarritik gero, zilegi izango da udalari esatea zein herritarrek jaso duen laguntza eta zein laguntza jaso duen, baldin eta udalak gizarte zerbitzuen arloko eginkizunak baldin baditu bereganatuta, eta baldin eta eginkizun horietarako datuok jakitea funtsezkoa bada.

Bestelako kasuetan halako datuak lagatzeko, lehendabizi disoziazio prozedura erabili beharko da, ezinezkoa izan dadin informazioa pertsona identifikatu edo identifikagarri batekin lotzea.

- **Udaleko web atarian espedienteak atzitzea (CN16-004)**

Udal batek jakin nahi du zer uste duen DBEBk eta ea datuak babesteko legediaren arabera jotzen duen interesdunek zenbait administrazio espediente atzitu ahal izatea udaleko web ataritik. Datu babesaren ikuspegitik begiratuta, hor planteatzen dena ez da atzipen bat, datu lagatze bat baizik. Eta, beraz, ukituen adostasuna edo lege mailako arau baten babesa behar da. Datu lagatzea gaitzen duen legea azaroaren 26ko 30/1992 Legea da, zehatzago esateko, 35 a) artikulua. Edozelan ere, halako informazioa atzitzeari dagokionez, datuak babesteko eskubidearen oinarrian beste printzipio batzuk ere hartu behar direla aintzat, adibidez, datuen kalitatearen printzipioa. Printzipio hori DBLOren 4.1. artikulua aitortzen du: *"datu pertsonalak jaso eta tratatu ahal izateko ezinbesteko baldintza da datu horiek egokiak, bereizleak eta neurrikoak izatea, datu bilketaren eremuarekiko eta datu bilketaren helburu zehatz, esplizitu eta legitimoekiko"*. Kotsultako gaiari arrazionaltasun printzipio hau ezarritik gero, ezinezkoa izango zen, adibidez, interesdun jakin batek espedientean dagoen informazioa ikustea, berari buruzkoa ez bada eta helburuarekin



zer ikusirik ez badu (adibidez, prozeduraren sustatzailearen helbidea edo NANA, informazio hori garrantzitsua ez denean).

▪ **Uda bati lagatzea lan bizitzari buruzko agiria, udalak erretiroa izapidetzeko ofizioz (CN16-005)**

Planteatu diguten kasuan administrazioak eskatu dio interesdunari Gizarte Segurantzako informazioa aurkezteko, kotizazio epeekin, administrazioak zehatz finkatu dezan zein den erretiro-pentsioaren onuraduna izateko adina. Datu hori eskuratzeko, nahikoa da Lan Bizitza Txosteneko lehenengo orrialdea, bertan jasotzen delako, besteak beste, alta egoera egondako egun kopurua. Txosteneko datuak pertsona fisikoei buruzko datu pertsonalak dira dudarik gabe. Beraz, datu horiek datu pertsonalak babesteari buruzko araudiaren babes-esparruan daude. Txostenak datu pertsonalak dituen arren, administrazioak eskatu egin behar du txostena, bere ahalak burutu ahal izateko, eta, hartara, funtzionarioen nahitaezko erretiroa ofizioz deklaratzeko prozedura ebatzi. Edozelan ere, nahikoa bada Gizarte Segurantzako kotizazio-aldiak jakinda, bada administrazioak informazio hori eskatu beharko du bakarrik, eta, horrela bete egingo du DBLOren 4. artikulua xedatutako datuen kalitatearen printzipioa.

▪ **Zinegotziek sarreraren eta irteeren erregistroan sarbidea izatea (CN16-006) (CN16-008) (CN16-011)**

Zinegotziek gainontzeko herritarrek baino informaziorako atzipen eskubide zabalagoa dute, Konstituzioaren 23. artikulua xedatuta. Hala ere, sarreraren eta irteeren erregistroan jaso daitezkeen datuen artean datu sentisibleak ere egon daitezkeenez, ezinezkoa da halako erregistroetan datuen atzipen indiskriminatuak egitea. Gainera, 30/1992 Legearen 38.4 b) artikuluan xedatutakoaren arabera, gerta daiteke toki erakunde bateko erregistroan dokumentu bat erregistratzea eta dokumentua beste administrazio publiko baterako izatea. Horren ondorioz, sarreraren eta irteeren erregistroan (modu telematikoan nahiz eskuz) sartzeari eta dena ikustea ez dator bat DBLOren 4. artikuluan xedatutakoarekin (datuak egokiak, garrantzitsuak eta neurrikoak izatea, lortu nahi den helbururako) ez eta DBLOren 7. artikuluan xedatutakoarekin ere (7. artikulua babes berezia behar duten datuak arautzen ditu).

▪ **Udal bateko gardentasunaren atarian zenbait epai argitaratzea (CN16-007)**

Udal-gardentasunaren atarian epaiak argitaratzea datu-tratamendu bat da, eta abenduaren 9ko 10/2013 Legearen babesa du. Eta udal erabakiak ez dira nahikoa lege gaikuntza.

Botere Judizialari buruzko Lege Organikoan jasotako aurreikuspenak ikusi eta gero, esan dezakegu ebazpen judizialen zabalkunde publikorik ez dela egin nahi, indarrean dauden salbuespen kasuetan izan ezik, eta Konstituzioaren 20. eta 18.4 artikuluen artean talka (edozein hedabidetatik askatasunez egiazko informazioa komunikatu eta



jasotzeko eskubidea eta datuak babesteko eskubidea, hurrenez hurren) gertatuz gero, lehenengoa nagusituko dela, argitaratutako informazioa benetakoa denean eta garrantzi publikoa duenean.

- **Hauteskunde mahaiak eratzeko zozketaren emaitza udalaren web orrian argitaratzea (CN16-009)**

Datu pertsonalak babesteko araudiaren kontra dago hauteskunde mahaiak eratzeko zozketen emaitzak argitaratzea udalaren web orrian, ukituen adostasunik ez badago eta lege gaikuntzarik ez badago.

- **Udal erroldako datuak eta zerga arloko datuak lagatzea, eta zinegotzi batek zenbait espediente atzitzea (CN16-010)**

Udal erroldako datuak laga daitezke, baina administrazio publikoei eta interesdunari berari bakarrik. Interesdunaren berariazko baimena beharko da hirugarren pertsona batek interesdunaren errolda-agiria eskatu eta jaso ahal izateko. Eta udalak baimena gorde egin beharko du, interesdunaren adostasuna dagoela egiaztatzeko, premia dagoen bakoitzean.

Kontratu baten enpresa-esleipendunak biztanleen erroldako datuak atzitu behar baditu, datuak nahitaez behar dituelako udalari zerbitzu bat emateko, DBLOren 12. artikuluko 2. eta 3. zenbakietan xedatutakoa bete beharko dira. Tratamendu-enkarguaren baldintzak idatziz jaso beharko dira, nahiz eta esleitutako administrazio-kontratua kontratu txiki baten bidez formalizatu enpresarekin.

Zerga arloko datuak (udal zergak likidatzea) atzitzearen eta komunikatzearen gainean esan behar dugu izaera erreserbatua dutela, eta datuen titularraren adostasuna edo baimena beharko dela hirugarrenei komunikatu ahal izateko. Eta udalak gorde egin beharko du titularraren edo interesdunaren baimena, baimena edo adostasuna baduela egiaztatu behar duen bakoitzerako.

Bukatzeko eta azken galderari erantzuteko, zinegotziek eskatu ahal izango dute, kontrol eginkizuna burutu ahal izateko, nahitaez behar duten informazioa; baina, aldeaz aurretik eta ondo arrazoituz eskatu behar dute, eta eskaera onartzen duen ebazpena edo erabakia ere egin beharko du dagokionak, AJAren 14. artikuluko xedatutakoaren arabera. Era berean, zinegotziek informazioa jaso ahal izango dute kontrol eginkizuna burutzeko behar dutenean edo dena delako gaiak aztertu behar dituzten kide anitzeko organoetan daudenean. Eta herritar orok eskuratzeko moduko tokiko erakundeko informazioa edo dokumentazioa denean ere jaso ahal izango dute. Baina, gauza bat da informazioa eskuratzeko edo atzitzeko eskubidea, eta beste bat espedienteen kopiak eskuratzeko eskubidea. Espedienteen kopiak eskuratzeko, AJAren 16. artikuluko xedatutako betekizunak eta baldintzak bete behar dira; eta artikuluko dio informazio atzipenak librean direnean eta tokiko gobernu batzarraren lehendakariak berariaz baimendutako kasuak direnean bakarrik eskuratu ahal izango direla.



Zinegotzi batek gizarte larrialdietarako laguntzen espedienteak atzitzeari buruz, esan behar dugu espedienteek bereziki babestutako datuak eduki ditzaketela. Abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 63. artikulua dio euskal administrazio publikoek bermatuko dutela organismo eskudunek espedienteak izapidetzerakoan lortutako datuak isilpean gordeko dituztela. Ondorioz, Agentziak uste du kontsultak aipatzen duen zinegotziari gizarte larrialdietarako espedienteak modu masiboan eta indiskriminatuan lagatzea ez datorrela bat datuak babesteko araudiarekin.

- **Udal erroldako eta ibilgailuen erroldako datuak lagatzea merkataritza elkarte bati (CN16-012)**

Merkatarien elkarteei ezin zaie erroldako daturik laga ukituen adostasunik gabe, ez duelako Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen 16. artikulua lege gaikuntzarik. Zerga datuek izaera erreserbatua dute, eta GLHko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak ere ez du baimentzen “ibilgailuen erroldako” datuak merkatarien elkarteari lagatzerik.

- **Erroldako datuak lagatzea Correos y Telégrafos sozietateari (CN16-013)**

Ez da zilegi Erroldako datuak lagatzea Correos y Telégrafos sozietateari datuen titularraren alde aurreko adostasunik gabe, ez delako ondo ezkontzen datu pertsonalak babesteko araudiarekin; eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 16.3 artikulua ere ez du babesten, ez delako administrazio publikoa.

- **Lan poltsa batean daudenei buruzko datuak lagatzea sindikatuei (CN16-014)**

Oinarritzko bi eskubide hauen arteko tira-bira bati buruzko kasu bat da: Konstituzioaren 28. artikulua arautzen duen sindikatu askatasunerako eskubidea eta Konstituzioaren 18.4 artikulutik eratorritako datu pertsonalak babesteko eskubidea.

Esparruko araudia eta jurisprudentzia ikusita, gure ustez, kontsultan aipatzen den lan poltsak kontrolatu behar izatea nahikoa arrazoi da jakiteko nortzuk osatzen duten lan poltsa eta lan poltsa eratzeke gauzatu den prozesuaren emaitzak jakiteko ere bai; horrela egiaztatu daitekeelako prozedura legezkota izan dela.

- **Etxebizitza batzuetako ur kontsumoari buruzko datuak lagatzea (CN16-015)**

Eusko Jaurlaritzak edateko ura banatzen duen udal sozietate bati ondokoa eskatu dio, Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen 64. artikulua dioena betez: *“egiaztagiria egiteko hainbat etxebizitzatan azken bi urteetan izandako ur kontsumoarekin m3-tan”*.

Kontsultak aipatzen dituen datuak datu pertsonalak direnez, DBLOren menpe daude, eta, beraz, datu lagatze bat planteatzen du, eta halako datu tratamendu bat egin ahal izateko arau orokorra da datuen titularra ados egotea. Baina, adostasuna ez da beharrezkoa lege ezarritako zenbait kasutan, adibidez, lege batek ematen badu datuak lagatzeko baimena. 3/2015 Legearen 64. artikulua lege gaikuntza ematen du



datu horiek lagatzeko eskumena duten administrazioei, etxebizitzaren erabilera desegokia frogatzeko. Hala eta guztiz ere, kontua hartzen bada Konstituzio Auzitegiak eten egin dituela 3/2015 Legearen 64. artikulua eta beste batzuk, gobernuak jarduneko presidenteak sustatutako konstituziokontraotasun errekurtso baten ondorioz, esan behar dugu etenda segitzen duten bitartean edo artikulua horien konstituziokontraotasuna ebatzi bitartean ez dagoela halako datuak lagatzea gaitzen duen legerik, ukituen adostasunik ez badago.

▪ **Udal baten datuak lagatzeko eskabidea, diruz lagundutako jardueraren baten kontu-ikuskaritzaren kontrola burutzeko (CN16-016)**

Kontsultaren gaia da honako bi eskubide hauen arteko talka ebaztea: batetik, datu pertsonalak babesteko oinarritzeko eskubidea, eta, bestetik, administrazioak gauzatu beharreko kontrola, sustapen jardueretarako ematen dituen diru-laguntzen gainean. Kasu honetan, udalak, kultura arloko ikastaroak emateagatik diruz laguntzen zuen elkarte bati eskatu zion esateko diruz lagundutako ikastaroetan parte hartu zuten pertsonen zerrenda eta ordaindutako zenbatekoa. Kontu-ikuskaritzari buruzko eta diru-laguntzen lege erregimenari buruzko araudiak legitimatzen dute udalak eskatutako datuak laga ahal izatea.

▪ **Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga-zorrenaren zenbatekoari buruzko datu lagatzea (CN16-017)**

Partikular batek Gizarte Segurantzak bahitutako ibilgailu baten enkante publikoan hartu nahi zuen parte, eta eskatu zion udalari trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga likidatzean sortutako zorrari buruzko informazioa. Zerga hori ordaintzea nahitaezkoa da, ibilgailuen titulartasuna aldatuz gero, zirkulazio baimena berritzeko. Horretarako, zerga-zorra jasota egon beharko da Trafikoko Buruzagitza Nagusiaren Ibilgailuen Administrazio Erregistroan. Enkante publikoaren iragarkian agertu beharko dira bahitutako ibilgailuaren eskualdaketa administratiboan eragina izan dezaketen egoera juridikoak (Gizarte Segurantzaren Zerga-bilketako Erregelamendu Orokorraren 117.2 artikulua), adibidez, zenbateko zorra duen Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergan; izan ere, zerga ez bada ordaindu, ezin izango delako ibilgailua eskualdatu, eta, beraz, ezin izango delako ibilgailua erosi nahi duenaren aldeko zirkulazio baimen berririk egin. Era berean, ibilgailu bat erosi nahi dutenek bi erregistrotara jo dezakete ibilgailuaren aurrekariak jakiteko: Ibilgailuen Administrazio Erregistroa eta Ondasun Higigarrien Erregistroa. Bi bide horiek erabilita interesdunak ez badu lortzen jakitea ibilgailuak zein zor duen zerga ez ordaintzeagatik, horrek esan nahi du interesdunari ukatu egiten zaiola jakitea zein izango den, ibilgailua erosiz gero, ordaindu beharko duen zenbateko osoa; izan ere, saltzaileak ez badu zorra ordaintzen, erosleak ordaindu beharko du, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak zirkulazio baimena berritu eta bere izenean ematea nahi badu. Beraz, informazio gehiagorik ez dugunez, Agentziak uste du aipatu dugun azken egoeran behintzat zilegi dela udalak ibilgailua erosteko asmoa agertzen duen hirugarren bati esatea zenbatekoa den eskualdaketa egiten den urtearen aurreko zergaldiko trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren zorra, ordaindu gabe badago (Toki Ogasunak arautzen dituen



Legearen Testu Bateginaren 99. artikulua). Baina, udalak ez du beste daturik emango: nor den ibilgailuaren titularra edo beste datu pertsonalik. Eta hori hala egin beharko da DBLOren 4. artikuluan xedatutako kalitatearen printzipioak hala eskatzen duelako.

▪ **Hainbat datu pertsonal Udaltzaingoari jakinaraztea, herritarren segurtasunerako arau-hauste prozedura bat irekitzeko (CN16-019)**

Udal bateko Udaltzaingoaren zuzendaritzak Euskal Osasun Zerbitzuan lan egiten duen fakultatibo baten NANari eta helbideri buruzko datu pertsonalak eskatu zituen, Herritarren Segurtasuna Babesteko martxoaren 30eko 4/2015 Legean jasotako zehapen espediente bat izapidetu ahal izateko.

DBLOren 11.1 artikulua xedatzen du datua lagatzeko edo komunikatzeko bete behar den printzipio orokorra zein den: interesduna ados egotea. Hala ere, ez da beharko interesdunaren adostasunik legeren batek agintzen badu datuak laga daitezkeela (DBLOren 11.2.a artikulua). Kasu honetan, Herritarren Segurtasuna Babesteko martxoaren 30eko 4/2015 Legea da baimena ematen duen legea, baina 46.1 artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badira: bata da zehapenak ezartzeko ahala duen erakundeari lagatzea datuak, eta bestea da arau-haustea dakarten egitateen ikerketarekin zuzeneko lotura izatea eskatu dituzten datuok. Kasu honetan Agentziak uste du alkateak zehapena ezartzeko eskumena duela, eta, beraz, alkateak baduela ahala ustezko arau-hauslea bizi den udalerriko erroldatik jasotzeko bere helbideari buruzko datua eta nortasun agiri nazionalaren zenbakiari buruzko datua (TAOLen 16.3 artikulua). Ezin bada jakin ustezko arau-hauslea non bizi den, alkateak EUSTATi edo Estatistikako Institutu Nazionalari eskatu ahalko dizkio datu pertsonal horiek, toki araubidearen oinarriari buruzko legediak dioenez, udalerri guztietako errolden kopien gordailuzainak direlako bi erakundeok.

▪ **Hezkuntza administrazioko hezkuntza-premia berezien aplikazio Informatiko batean jasotako ikasle baten datuak ezerezte (CN16-021)**

Itunpeko ikastetxe bateko ikasle baten legeko ordezkariak hezkuntza administrazioari eskatu dio hezkuntza-premia bereziak dituen ikasleei buruzko aplikazio informatiko batetik ikaslearen datuak ezabatzeko. Hezkuntza administrazioak erabaki behar du datu pertsonalak zenbat denbora gorde behar diren datuak, ezereztu behar direnak barne; eta gordetzeko arrazoia da ikasleen hezkuntzarako eskubidea bermatzea, hezkuntza araudiak agintzen dituen baldintzekin. Edozelan ere, bete egin beharko da DBLOren 4.5 artikuluko kalitatearen printzipioa; horrek esan nahi du datu pertsonalak ezabatu egin beharko direla nahitaez, datuok jasotzeko edo erregistratzeko zegoen helbururako beharrezkoak izateari uzten diotenean.

▪ **Bideo zaintzako kamerak jartzea ibilgailu pribatuetan (CN16-022)**

Administrazio batek galdetu digu ea ibilgailu pribatuetan instalatutako kamerek hartutako irudiak tratatzea ondo ezkontzen den salbuespen domestikoa delakoarekin.



Partikularrek bideo-kamerak erabiltzen badituzte bide publikoa zaintzeko, berdin dio nola egiten duten zaintza, ibilgailu batetik, bizikleta batetik, drone batetik, kirola egin bitartean, hori ez da salbuespenean sartzen. Beste batzuek egiten dutena norberaren kamerekin grabatzea, ezin da jo norbere esparru partikularreko, familia esparruko edo lagun arteko esparruko jardueratzat.

- **Osasun Sailak, ikerketa proiektu batzuetarako, hainbat datu lagatzea (CN16-023)**

Osasun datuak (bereziki babestutako datuak) ikerketa epidemiologikoko azterlanak egiteko laga ahal izateko, Datuak Babesteko Lege Organikoak eta Lege Organikoak aipatzen duen esparruko araudiak xedatzen dutena bete behar da. Beraz, horrek esan nahi du nahitaez babestu beharko direla pazienteen identifikazio datuak, pazienteen **anonimatua** ziurtatuta egoteko. Datuak babestea ez da nahitaezkoa izango, pazienteak berariazko adostasuna adierazi badu datuak lagatzeko, eta, ondorioz, datuak ez badira bereizi behar (41/2002 Legearen 16.3 artikulua). Horrek esan nahi du datuak lagatzeko, datu pertsonalak anonimizatu egin beharko direla, pazienteak berariazko adostasuna adierazi ezean. Neurriak hartu beharko dira anonimizazio prozesuan ahalik eta arrisku txikiena egon dadin, nahiz eta jakin zero arriskurik ez dagoela. Gainera, helburua lortzeko behar beharrezko datuak baino ezin izango dira laga (datuen kalitatearen printzipioa).

- **Datu pertsonalak tratatzea toki administrazio batek argitaratuko duen ikerketa genealogiko batean (CN16-024)**

Ikerketa genealogiko bat egitea eta gero hori argitaratzea datu-tratamendua dela esan behar da, eta DBLOren menpe dago. Beraz, datuak tratatzeko, adostasuna edo lege gaikuntza behar da.

Arloko araudia aztertu eta gero, artxibo historikoetan dagoen informazioari buruz esan behar dugu han ageri diren eta bizirik dauden pertsonei buruzko informazioa tratatzea zilegi den ala ez jakiteko, arloko araudian aurreikusitako epeak hartu beharko direla kontuan; zehatz esateko, batetik, Artxibo Zerbitzuetako Araudia eta Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentazio Ondarea erregulatzeko arauak onartzen dituen azaroaren 21eko 232/2000 Dekretuaren 19.1b) artikulua xedatzen duen 50 urteko epea; eta, bestetik, Espainiako Ondare Historikoari buruzko 16/1985 Legearen 57. artikuluan jasotakoa.

Hala ere, ideologia, erlijio, sinesmenei edo sindikatu afiliazioari buruzko datuek babes berezia dutenez DBLOren 7.2 artikulua araberak, ezingo dira argitaratu. Zuhurtzia berarekin jokatu beharko da arau-hauste penal edo administratiboei buruzko informazioa argitaratzeko. DBLOren 7.5 artikulua aipatzen ditu halako datuak.



▪ **Datu pertsonalak ezerezteko adostasuna errebokatzeagatik (CN16-025)**

Ez dira gauza bera bere garaian datu pertsonalak tratatzeko adierazitako adostasuna bertan behera uzteko eskubidea (DBLOren 6.3 artikulua) eta DBLOren 16. artikulua arautzen duen datuak ezerezteko eskubidea. Datuak ezerezteko eskubideak DBLOren 4. artikuluan jasotako printzipioekin du zer ikusia; hau da, fitxategiaren arduradunak printzipio horiek ez betetzearekin. Adostasuna ezerezteak, ordea, ez du zer ikusirik arduradunaren huts egiteekin. Baina, kontuan eduki behar da interesdunak bertan behera uzten badu bere datuak tratatzeko bere garaian agertu zuen adostasuna, aurrerantzean ezin izango direla bere datuak tratatu, eta tratatzen badira, DBLO urratuko dela, datuak gordetzeagatik eta DBLOn ezarritako printzipioak ez betetzeagatik. DBLO garatzen duen Erregelamenduak prozedura bana ezartzen du eskubide bakoitzerako. Baina, nahiz eta eskubide bi izan eta desberdinak izan, biek ondorio bera dute: datuak blokeatzea; eta araudian ezarritako iraungitze-epeak bete ostean, datuak ezabatzea.

▪ **Langile publikoei ematen zaizkien bateragarritasun ebazpenak argitaratzea (CN16-026)**

Langile publikoei ematen zaizkien bateragarritasun ebazpenak argitaratzea zilegi da, abenduaren 9ko 19/2013 Legeak agintzen duelako, informazio ekonomikoaren baitan; eta izen-abizenekin argitaratu behar dira, Gardentasunari eta Gobernu Onari buruzko Kontseiluak ezarritakoaren arabera.

▪ **Foru esparru publikoko erakunde guztien plantilla organikoa lagatzea batzarkide talde bati (CN16-027)**

Batzar Nagusien Erregelamenduak lege indarra du batzarkideei lagatzeko, euren eginkizunak burutu ahal izateko nahitaez behar duten informazioa, interesdunen adostasunik gabe.

DBLOren 4. artikulua xedatzen duen datuen kalitatearen printzipioak, arrazionaltasun irizpidea txertatzen du informazioa erabiltzen denean, eta lege gaikuntza badago ere, ezin izango da gehiegizko tratamendurik egin. Printzipio horren arabera, bakar bakarrik eskatu ahal izango da kontrol eginkizunak behar bezala betetzeko batzarkideentzako nahitaezkoa den informazioa; eta horixe da Batzar Nagusien Erregelamenduak dioena.

Agentziak esku hartzeren bat egiten badu botere exekutiboaren eta legegilearen arteko harremanen esparruan, esku hartzea lankidetzaren esparruan da, eta helburua da laguntzea ahalik eta erabakirik egokiena hartzen datuak babesteko eskubideari dagokionez, bi erakunde horien eginkizunetan esku hartu gabe, erakunde bi horiek batzar nagusietan konpondu beharko dituztelako haien arteko gorabeherak, Batzar Nagusietako Erregelamenduan jasotako prozedura betez.



- **Hirugarren kaltetu bati lagatzea udaltzaingoaren fitxategietan dauden zenbait datu (CN16-028)**

Euren integritate fisikoan edo euren ondasunetan kalteren bat jaso duten pertsona fisikoak dira kalte baten ondorioz datozen erantzukizun-ekintzen titularrak. Eta erantzukizun-ekintza hori baliatzeko, eta Prozedura Zibilaren Legearen 155.2, 399.1 eta 437.2 artikuluetan xedatutakoa aintzat hartuta, salaketak behar bezala formalizatzeko, nahitaezkoa da salaketan adieraztea salatuaren identitatea. Beraz, kalteak jasan dituzten pertsonak dira kaltea konpontzeko agintzen duen interes legitimoaren ekintzen titularrak. Eta 95/46 Zuzentarauaren 7 f) artikulua xedatzen duenez, interes legitimoa nahikoa titulu gaitzailea da, ukituen adostasunik gabe, datuak lagatzeko. Baina, tituluak agintzen du ponderazioa egin beharko dela kasu kasu.

- **Fitxaketak egiteko hatz-marka bidezko sistema ezartzea (CN16-029)**

Esan daiteke langileen datu biometrikoen tratamendua ondo ezkontzen dela datuak babesteko araudiarekin, helburua sarbidea kontrolatzea bada.

Hala ere, ahal dela, instalatzen diren hatz-marka irakurgailuek ahalbideratu behar dute egiaztapeneko bitartekoak (langilearen hatz-markaren algoritmoa) ukituen esku daudela, eta ez direla sisteman jasoko; eta sistemak langilearen identifikazio datuak jasoko ditu, langilea dela egiaztatzen duenean.

- **Mankomunitate baten eta bertako udalen arteko datu-lagatzea, diru-laguntza batzuk kudeatzeko (CN16-030)**

Mankomunitate batek eta bertako kide diren udaletako bakoitzak sinatuko duten lankidetza hitzarmenak ez ditu legitimatzen datu tratamenduak, ukituen adostasunik edo lege baten gaikuntzak baizik.

- **Hilda dauden elkargokideen espedienteak atzitzea (CN16-031)**

Hildako pertsonen datuak ez dute datu babesari buruzko araudiaren babesik, hala xedatzen baitu Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoa garatzen duen Erregelamenduaren 2.4 artikulua.

3.3. TXOSTENAK

Atal honetan sartzen ditugu honako hauek:

- 2/2004 Legea garatzen duten xedapen orokorretako egitasmoei buruzko derrigorrezko txostenak, 17.1.h) artikulua xedatzen duenaren arabera.
- Nahitaez erantzun beharreko estatistikak finkatzen dituzten lege-xedapenei buruzko proiektuen gaineko txostenak, 2/2004 Legearen 17. 1.l) artikulua eta



DBEBren Estatutua onartzen duen urriaren 10eko 309/2005 Dekretuaren 5 a) artikulua xedatzen dutenaren arabera.

- Bestelako lege-xedapenei eta hitzarmenei buruzko txostenak, ebazteko ea datu pertsonalei buruzko araudiarekin bat datozen.

2016an 11 legezketasun txosten egin ziren. Hamar (10) dekretu-aurreproiektu eta agindu bat (1) informatu dira.

Hona informatu ditugun proiektuen zerrenda:

- IL15-014 Fidantzak jartzeari eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hiri Finken Errentamendu Kontratuen Erregistroari buruzko Dekretua.
- IL15-015 Euskadiko zentroetan eta osasun zerbitzuetan osasun asistentzia jasotzen duten pazienteen segurtasun neurrien gaineko dekretu-proiektua.
- IL16-002 Euskal Autonomia Erkidegoko kargu publikoen katalogo eguneratua onartzen duen dekretua.
- IL16-003 Urteko Estatistika Programaren dekretua 2016.
- IL16-004 EAEko lurralde-esparruko egoitza judizial elektronikoa sortzen duen agindua.
- IL16-005 Euskal Herriko Poliziaren Datu Bilketarako Zentroaren antolakuntza eta funtzionamendua ezartzen duen dekretua.
- IL16-006 Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordearen Estatutuak onartzeko dekretua.
- IL16-007 Euskal Autonomia Erkidegoko kargu publikoen betebeharrak eta eskubideak zehatzen dituen dekretu-proiektua.
- IL16-009 Etxebizitza duin eta egoki bat legez okupatzeko eskubide subjektiboari buruzko dekretu-proiektua.
- IL16-010 Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak estatutupeko langileak hautatzeari eta lanpostu funtzionalak sortzeari buruzko dekretua.
- IL16-011 Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoari buruzko dekretu-proiektua.

Informatutako proiektu guztien artetik, azpimarratzekoa da Euskal Autonomia Erkidegoko kargu publikoen betebeharrak eta eskubideak zehatzen dituen dekretu-proiektua.

Dekretu horrek hiru lege garatzen ditu: Kargu publikodunen Jokabide Kodea eta haien interes gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legea; Goi-kargudunen ordainsariei buruzko urriaren 28ko 14/1988 Legea eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko Legea berritzen duen maiatzaren 30eko 10/2010 Legea, pentsioa jasotzeko eskubidea arautzen duen araudi berria ezartzen duena.

Txostenean, DBEBk azpimarratu du erregelamenduak ez duela nahikoa indarrik dekretu-proiektuan aurreikusitako datu-tratamenduen lege oinarri bihurtzeko; eta ukituen adostasuna edo lege mailako arau baten gaikuntza behar dela; eta gaikuntza ematen duen legea izan daitekeela dekretuak garatutako legeren bat edo



Gardentasunari, Informazioa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea.

3.4. AHOHKULARITZA BILERAK

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak duen izaera proaktiboa eta zerbitzu publikoa izateko asmoa kontuan hartuta, hainbat bilera egin ditugu Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait administrazio eta erakunderekin, eta aholkularitza eman diegu, esate baterako, obligazio formalak betetzeari buruz eta administrazio horien eskumen esparruan burutu behar dituzten jarduerari buruz.

Horrekin lotuta, 2016an Agentziako Aholkularitza Juridiko eta Ikuskaritzak honako bilerak egin ditu:

- Bilera bat IVAPekin, hautaketa probak ea egokiak diren aztertzeke galde-sortei buruz.
- Bilera bat Galdakaoko Udalarekin, publizitate aktiboari (gardentasuna) buruz eta datu babesari buruz.
- Bilera bi Memoriaren, Gogora-Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuarekin, indarkeriaren biktimen datu tratamenduari buruz: gerra zibila, diktadura frankista eta terrorismoaren biktimak.
- Hiru bilera Osakidetzarekin, honako gaiak aztertzeke: historia klinikoak atzitzea osasun asistentzia eta ikerketa helburuekin; medikuntza eta erizaintza ikasleak historia klinikoak atzitzea; datu-tratamenduak ondare erantzukizuneko espedienteetan eta datuen kalitatearen printzipioa; eta AZETA eskubideak.
- Bilera bat Lehendakaritza Sailarekin, izenpetu nahi duen hitzarmen batean jasotako datu-tratamendu bat dela eta.
- Bilera bat Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailarekin, DBLO betetzeke etxebizitzak eta zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozeduretan.

Azpimarratu nahi dugu Agentziak egiten duen aholkularitza lana ez dela egiten bakarrik administrazio bakoitzak dituen kezkak argitzeke, datu babesaren kultura zabaltzeke eta hedatzeko konpromisoa betetzeke baizik.



4. KONTROL EGINKIZUNA

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak, kontrol eginkizuna burutzeko, datuak babesteko araudia bete egiten dela zaintzeaz gain, euskal administrazio publikoek behar bezala ezartzen dutela ere kontrolatzen du; eta, hala badagokio, administrazio horien arau-hausteak deklaratzeko, eta isunak ezartzen dizkie administrazio horien kontura tratamendu arduradunaren eginkizunak burutzen dituzten enpresa pribatuei.

Horretaz gain, herritarrek aurkezten dituzten atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak ("AZETA eskubideak" izenez ere ezagunak) babesteko erreklamazioak ebazten ditu.

4.1. ESKUBIDEEN BABESA

Eskubideak babesteko prozedura Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 9.2 artikuluan aurreikusita dago, eta urriaren 18ko 308/2005 Dekretuaren 11. artikuluan dago garatuta. Bertan esaten denez, DBEBri babes eskea egin ahal izateko, lehendabizi AZETA eskubidea erabili behar izan du babes-eskatzailleak dagokion administrazioan, eta administrazioak osorik edo zati batean ez erantzun eskaerari.


2016an % 27 igo da babes eskabideen kopurua. Lehenengo tokia izan dute ezerezte eskubidearen gaineko erreklamazioek, eta atzetik egon dira atzipen eta zuzentze eskubidearen gainekoak.

Zifra horiek erakusten dute aurreko memorietan adierazitako joera mantendu dela, eta herritarren kezka handi bat dela euren datuak ez daitezela betiko hedatu Interneten, eta hori ekiditeko, ahaztuak izateko eskubidea baliatuz.

2016an guztira 19 babes erreklamazio ebatzi dira, eta horietako % 75 onetsi egin dira.

Erreklamazio gehienak arrazoi formalengatik onetsi dira, epez kanpo erantzun dietelako eskubidea egikaritzeko eskabideei.

Zenbait babes eskabide ez dira onartu. Batzuk ez dira onartu eskatzailleek ez dutelako alde aurretik eskubidea baliatu dagokion administrazioaren aurrean, eta beste batzuk AEPDren eskumenekoak izateagatik.





Hona 2016an ebatzitako babes eskeak:

Ezerezteko eskubidea

- **Administrazio Batzar bateko akta bateko datuak ezerezte (ET15-009 eta ET15-010)**

Markinezeko Administrazio Batzarraren akta batean jasotako salaketa bati buruzko datu pertsonalak ezerezteko eskatu zuten. DBEBk onetsi egin zituen babes erreklamazioak, datuak ez zirelako beharrezkoak akta egin eta argitaratzearen berezko helburuak betetzeko; izan ere, datuak babesteko oinarritzko eskubidea gailentzen baitzaio informaziorako eskubideari, datu pertsonalak tratatzea justifikatzen duen interes publikorik ez badago.

- **Udal web-orrian argitaratutako zenbait datu ezerezte (ET15-014)**

Agentziaren babesa eskatu zuten Durangoko Udalaren web orrian 1999an argitaratutako datu batzuk ezerezteko.

Babes erreklamazioa formalki onetsi zen, udalak ezerezteko eskabideari epea kanpo erantzun ziolako.

- **Aldizkari ofizial batean argitaratutako biztanleen udal erroldako ofiziozko baja ezerezte (ET16-001)**

Babes erreklamazioaren egileak nahi zuen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako datu pertsonal batzuk ezerezte. Datuak biztanleen udal erroldako ofiziozko bajari buruzkoak ziren.

Erreklamazio ezetsi egin zen, erreklamazio egileak ez zuelako behar bezala egiaztatu Agentziara jo aurretik eskubidea baliatu zuenik tratamenduaren arduradunaren aurrean.

- **Udal web-orrian argitaratutako hautaketa proba batzuen kalifikazioak ezerezte (ET16-002)**

Agentziaren babesa eskatu zuten, erreklamazio-egilearen datu pertsonalak ezerezteko, datuak Mendexako Udalaren web-orrian argitaratu zituztelako.

Erreklamazioa onetsi egin zen arrazoi formalak tarteko, Udalak datuak legeko epearen barruan ezereztu bazituen ere, ez ziolako jakinarazi interesdunari.

- **Udal web-orrian argitaratutako zenbait datu ezerezte (ET16-003)**

Erreklamazio egileak eskatu zuen 1999an Gautegiz-Arteagako Udalaren web-orrian argitaratutako bere datu pertsonalak ezerezteko, datuok ez zirelako beharrezkoak.



Babes erreklamazioa onartu egin zen, arrazoi formalak tarteko, eskabideari epez kanpo erantzuteagatik.

- **Kontzejuko iragarki-oholean argitaratu zuten akta bateko datu pertsonalak ezerezteak; eta Kontzejuko saio baten grabazioa atzitzea (ET16-005)**

Erreklamazio-egileak eskatu zion Markinezeko Administrazio Batzarrari Kontzejuko akta batean jasotako bere datu pertsonalak ezerezteko. Horrez gain, Kontzejuko saio baten grabazioa ere eskatu zion Administrazio Batzarrari. Administrazio Batzarrak eskabide biak ezetsi zituen.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak onetsi egin zuen babes eskabidea, uste zuelako aktan jaso zituzten erreklamazio-egilearen datuak ez zirela beharrezkoak; eta eskatu zion Administrazio Batzarrari datu pertsonal horiek ezerezteko. Gainera, Agentziak adierazi zuen erreklamazio-egileak eskubidea zuela atzitzeko Kontzejuko aktan jasotako bere datu pertsonalak.

- **Sindikatu iragarki-oholean argitaratutako zenbait datu ezerezteak (ET16-009)**

Pertsona batek babes erreklamazio bat aurkeztu zuen DBEBn, sindikatu iragarki-oholean argitaratutako hainbat datu ezerezteko eskabidea ez ziotelako aintzat hartu.

Erreklamazioa ezetsi egin zen, Datuak Babesteko Espainiako Agentziak zuelako erreklamazioa ebazteko eskumena.

- **Polizia aurrekariak ezerezteak (ET16-010)**

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari eskatu zioten polizia aurrekari batzuk ezerezteko. Segurtasun Sailak eskatu zion eskatzaileari eskabidea zuzentzeko eta aurkezteko Zigortuen eta Auzi-iheslarien Erregistro Nagusiaren egiaztagiria. Eskatzaileak ez zuenez eskatutako dokumentazioa aurkeztu, Agentziak ulertu zuen eskaeran atzera egin zuela.

Agentziak ezetsi egin zuen eskabidea, erreklamazio-egileak ez zuelako behar bezala egikaritu datuak ezerezteko eskubidea. Hala ere, Segurtasun Sailak berak ofizioz ezereztu zituen datuak, horretarako legezko betekizunak betetzen zirela egiaztatu zituenean.

- **Udal web-orrian argitaratutako zenbait datu ezerezteak (ET16-011)**

Erreklamazio-egileak eskatu zion Urkabustaizko udalari udal web-orritik ezerezteko bere amaren datu pertsonalak, ama hilda baitzegoen.

Erreklamazioa onetsi egin zen, arrazoi formalak tarteko, berandu egin bazuen ere, Udalak eskubidea egikaritu egin zuelako.



- **EHAAn argitaratutako dibortzio-epai bat ezerezte** (ET16-017 eta ET16-018)

Agentziak esan zien interesdunei erreklamazioa izapidetu ahal izateko, lehendabizi Agentziara bidali behar zutela Euskal Herriko Aldizkari Ofizialari egindako datuak ezerezteko eskabidearen kopia bat; eta, hala badagokio, bai eta jasotako erantzuna ere; izan ere, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 18.2 artikulua xedatzen baitu Agentziak bakar-bakarrik babestu ditzakeela herritarrak, lehendabizi arduradunari aurkeztu badiote ezerezteko eskabidea eta arduradunak ez badie behar bezala erantzun.

Atzipen eskubidea

- **Adingabe baten historia kliniko**a atzitzea (ET15-015 eta ET15-016 metatua)

Adingabe baten aitak eskatu zion Osakidetza

ri semearen historia kliniko

a. Aita guraso-ahalaren titularra zen.

Adingabeak 12 urte beteta zituen, eta, horregatik, Osasun Sailak bere iritzia entzun zuen, hala agintzen baitu azaroaren 14ko 41/2002 Legearen 9.3 artikulua. Adingabeak adierazi zuen ez zuela nahi aitak zehatz-mehatz izatea bere historia klinikoaren berri, eta medikuaren balorazioa bukatu ondoren, Osakidetza

ki ukatu egin zion aitari historia kliniko osoa atzitzeko eskabidea, adingabearen osasuna arriskuan jar zezakeelakoan. Hala ere, onartu zuen aitak eskubidea zuela semearen egoera klinikoaren berri izateko, bai eta semearen osasunaren bilakaeraren berri izateko ere.

Aitak babes-eskabidea aurkeztu zuenez, eta interes gatazka zegoela ikusirik, Agentziak ebatzi zuen adingabearen interesa gailentzen zitzaiola aitaren eskubideari, eta ebatzi zuen erreklamazioa materialki ezestea eta arrazoi formalak tarteko onestea ere bai, Osakidetza

ki eskabidea epez kanpo ebatzi zuelako.

- **Hildako senide baten historia kliniko**a atzitzea (ET16-004)

Agentzia

n erreklamazio bat aurkeztu zuten, pertsona batek hildako senide baten historia kliniko

a atzitzeko eskabidea aurkeztu ziolako Osakidetza

ri, eta Osakidetza

ki ez ziolako eraztun egokia eman.

Babes-erreklamazioa ezetsi egin zen, interesdunak lehendik ere baliatu zuelako atzipen-eskubidea hamabi hilabeteko denbora tartearen barruan, eta ez zuelako hamabi hilabeteko epearen barruan berriro eskubide bera baliatzeko interes legitimoa egiaztatu.

- **Historia kliniko**a atzitzea (ET16-006)

Erreklamazio-egileak DBEBren babesa eskatu zuen, historia kliniko

a atzitzeko eskabideari ez ziotelako erantzun. Osakidetza

ki eskabidea ebatzi zuen eta informazioa eman zion erreklamazio-egileari, baina Agentzia babes prozedura izapidetzen ari zen bitartean.



Beraz, babes erreklamazioa onartu egin zen, arrazoi formalak tarteko, eskabideari epez kanpo erantzuteagatik.

▪ **Historia klinikoa atzitzea (ET16-008)**

Erreklamazio-egileak DBEBren babes eskatu zuen, historia klinikoa atzitzeko eskabideari ez ziotelako erantzun. Osakidetza eskabidea ebatzi zuen eta informazioa eman zion erreklamazio-egileari, baina Agentzia babes prozedura izapidetzen ari zen bitartean.

Beraz, babes erreklamazioa onartu egin zen, arrazoi formalak tarteko, eskabideari epez kanpo erantzuteagatik.

▪ **Historia klinikoa atzitzea (ET16-014)**

Erreklamazio-egileak DBEBren babes eskatu zuen, Osakidetza ez ziolako erantzun historia klinikoa atzitzeko eskabideari.

Agentziak eskabidea zuzentzeko eskatu zion erreklamazio-egileari, identitatea egiaztatu behar zuelako. Ez zuenez eskabidea zuzendu, erreklamazio-eskabidea artxibatu egin zen, atzipen eskubidea eskubide pertsonala delako.

Zuzentzeko eskubidea

▪ **Izena zuzentzea (ET15-013)**

Pertsona batek eskatu zion Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Unibertsitate Zuzendaritzari, beka sisteman ageri den izena zuzentzeko, ebazpen judizial batean erabakitakoaren indarrez.

Babes erreklamazioa onartu egin zen, arrazoi formalak tarteko, hezkuntza administrazioak eskabidea epez kanpo onetsi zuelako.

4.2. AURRETIAZKO JARDUKETAK

Administrazio publiko bati arau-hauste prozedura bat hasi aurretik, DBEBk aurretiazko jarduketa batzuk burutu ditzake, aztertzeko ea gertatutakoa prozedura hasteko modukoak den.

Agentziak ofizioz burutzen ditu aurretiazko jarduerak, bere kabuz erabakita ala salaketa bat jaso duelako.



Hona 2016an ebatzitako aurretiazko jarduketak:

- **Bide publikoan kamera jartzea zabor isurketak kontrolatzeko (AP15-002)**

Aurretiazko jarduketak artxibatu egin ziren, Astigarragako Udalak DBEBren zuzendariaren ebazpena bete zuelako eta udalerriko auzoetan zaborrak uzteko guneetan zeuden kamerak kendu egin zituelako.

- **Udaltzaingoaren eraikineko bideo zaintzako kamerak (AP15-003)**

Aldez aurreko jarduketak amaitu egin ziren Eibarko Udalari PI16-001 arau-hauste prozedura ireki zitzaionean.

- **Udal garajeen eskatzaileen zerrenda argitaratzea udal web-orrian (AP16-001)**

Aldez aurreko jarduketak amaitu egin ziren Lasarte-Oriako Udalari PI16-011 arau-hauste prozedura ireki zitzaionean.

- **Whatsapp bidez zabaltzea hauteskunde-mahaietako kideak izendatzeko zozketaren emaitza (AP15-002)**

Aldez aurreko jarduketak amaitu egin ziren Vitoria-Gasteizko Udalari PI16-015 arau-hauste prozedura ireki zitzaionean.

- **Gizarte Segurantzako Institutu Nazionaleko mediku ikuskaritzak historia kliniko bat atzitzea (AP16-003)**

Aldez aurreko jarduketak artxibatu egin ziren, ikuskaritzak atzipen mugatua duelako, hau da, eskubidea duelako irekita edo itxita dagoen 180 egunetik gorako aldi baterako ezintasunei (berriro gaixotzea) buruzko informazioa atzitzeko.

4.3. SALAKETAK

Pertsona fisikoek edo juridikoek aurkeztutako erreklamazioak dira, euskal administrazio edo erakunde publikoek datu pertsonalen babesaren arloko araudia urratuz egiten dituzten jarduerak direla-eta. Beraz, Legean zehaztutako arau-hausteak dira.

2016an asko igo da salaketa kopurua aurreko urtearekin alderatuta: % 67 baino gehiago.

Agentziak egindako ikerketen ostean, salaketa asko artxibatu egin dira. Batzuk ez dira onartu eta Datuak Babesteko Espainiako Agentziara bidali ditugu, berak duelako eskumena. Gainontzeko salaketen ondorioz, zenbait administrazio publikotan arau-hauste prozedurak ireki dira.



4.3.1. Artxibatutako salaketak

- **Trabak jartzea atzipen eskubidea baliatzeko (DN15-015)**

Salaketa artxibatu egin zen, espedienteen egiaztatu zelako interesdunak egikaritutako atzipen eskubideari ez ziotela trabarik jarri.

- **Telegram, berehalako mezularitza-aplikazioa erabiltzea herritarrekin harremanetan jartzeko (DN15-016)**

Salatu zuten segurtasun-neurriak falta zirela herritarrekin harremanetan jartzeko berehalako mezularitza-aplikazioan. Datu Pertsonalen Fitxategien Erregistroa eta Auditoria Unitateak egindako txosten batean aztertutako zenbait alderdi teknikori lotutako salaketa bat zen, segurtasun neurri egokiak falta zirela iritzi baitzioten. Salaketa artxibatu egin zen.

- **Administrazio batzar bateko iragarki-oholean zenbait datu pertsonal argitaratzea (PI15-018)**

Salaketa artxibatu egin zen, izapidetutako espedienteen egiaztatu zelako argitaratu zuten informazioa banakako enpresario bati buruzkoa zela eta enpresarioa kontratu publiko baten esleipen-hartzailea zela. Beraz, ez dago DBLOren ezarpen eremuan.

- **Ezkutuko kopiarik gabe mezu elektronikoak bidaltzea era masiboan (DN15-024)**

Salatu zuten irakasle batek irakaskuntzari buruzko datuak bidali zizkiela ikasleei ezkutuko kopiarik gabe. Salaketa artxibatu egin zen, izapidetutako prozeduran egiaztatu zelako ikasleek adostasuna adierazi zutela ikasturte hasieran.

- **Dokumentu ofizial bat lagatzea sindikatu bati eta sare sozialetan argitaratzea (DN16-001)**

lkerketa eginbideak egin ziren, eta ez zen antzeman datu bilketako helburua ez zen beste helburu baterako tratatu zituztenik datuak. Beraz, salaketa artxibatu egin zen.

- **Elkargo profesional bati aurkeztutako kexa lagatzea (DN16-007)**

Kasu honetan salatu zuten salatzailearen adostasunik gabe laga zutela elkargo profesional batean aurkeztutako kexa.

Salaketa artxibatu egin zen, ez zelako nahiko arau-hauste prozedura irekitzeko nahikoa zantzurik.



- **Lankide bati jakinaraztea hitzordua medikuarekin (DN16-009)**

Pertsona batek salatu zuen mediku hitzordu bat jakinarazi ziotela lankide bati telefonoz. Dokumentu frogaren bidez ikusi zen salatzaileak berariaz adierazi zuela adostasuna datu tratamendu hori egiteko, eta salaketa artxibatu egin zen.

- **Mutua bati diziiplina espediente bat lagatzea, ukituaren adostasunik gabe eta hura erabiltzea prozedura judizial batean (DN16-012)**

Salaketa artxibatu egin zen gertakariak jazo zirenetik lau urte baino gehiago igaro zirelako, eta arau-haustea egon izan balitz ere, preskribatuta egongo zelako.

- **Mediku hitzordua hirugarren bati jakinaraztea posta elektronikoko bidez (DN16-021)**

Salatu zuten eskatu gabeko mediku hitzordu bat bidali zutela posa elektronikoko helbide batera. Salakera artxibatu egin zen, egiaztatu zutelako beste erabiltzaile batek eman zuela helbide hori mediku hitzordua jakinarazteko.

- **Datu pertsonalak lagatzea laneko absentismoaren jarraipena egiteko (DN16-022)**

Salatu zuten udal batek bertako langileei telefono zenbakia eta ohiko bizitokiko helbidea eguneratzeko eskatu ziela, aldi baterako ezintasun egoeren jarraipena egiteko programaren baitan ukituei arreta egiteko eta osasun informazioa emateko; eta udaleko mediku zerbitzukoak haiekin harremanetan jarri ahal izateko, komenigarritzat jotzen denean.

Salaketa artxibatu egin zuten, enplegatu publikoen harremanetarako datuak (telefonoa eta helbidea) eguneratzea zilegi delako, eta bat datorrelako DBLOren 4. artikulua finkatutako datuen kalitatearen printzipioarekin.

- **Diziiplina espediente batean osasun datuak tratatzea (DN16-024)**

Salaketa artxibatu egin zen, egiaztatu zelako salatzaileak berak eman zituela mediku txostenak, espedientean jasotzeko. Beraz, ez zen sekretua gorde beharra urratu.

- **NANa eskaneatzea administrazio bulego batzuetan sartzeko (DN16-036)**

Salatu zuten administrazioaren eraikin batean sartu nahi zuten pertsonen NANa eskaneatzen zutela.

Administrazio bulego batzuetako sarbidea kontrolatzeko, NANa eskaneatzea eta NANaren kopiak egitea ez da gehiegizko datu tratamendua, kontuan hartuta zein den helburua.



- **Osasun arloko dokumentazioa galtzea (DN16-037)**

Pertsona batek salatu zuen mediku gastuak itzultzeko berak aurkeztu zuen dokumentazioa galdu egin zutela. Salaketa artxibatu egin zen, egiaztatu zelako dokumentuak gastuak itzultzeko unitatean zeudela.

- **Biztanleen erroldako datuak lagatzea herri galdeketa antolatzen zuen plataforma bati (DN16-039)**

Salaketan artxibatu egin zen, ez zelako aurkitu datu komunikazioa egin zela adierazten zuen zantzurik.

- **Ustezko arau-hauste bati buruzko datuak lagatzea (DN16-054)**

Salaketa artxibatu egin zen, polizia judizialaren eginkizunen barruko datu tratamendu bat izan zelako eta Prozedura Kriminalako Legeak eta Herritarren Segurtasuna babesteari buruzko Legeak hala xedatzen dutelako.

4.4. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ARAU-HAUSTE PROZEDURAK

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio eta erakunde publikoei irekitzen zaizkien prozedurak dira, uste bada datu pertsonalak babesteari buruzko esparruan arau-haustea izan daitekeen portaeraren bat izan dutela. Eusko Legebiltzarraren otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 24. artikulua arautzen ditu, eta bukatzeko bi modu dauden: artxibatzea ala, hala badagokio, arau-haustea deklaratzeko, zuzentzeko neurriak hartzeko eskatuz.

2016an 20 arau-hauste prozedura berri hasi genituen eta 17 ebatzi genituen. Eraitza honakoa izan da: hiru arau-hauste oso astun, hamaika astun eta lau arau-hauste arin.

2016an gehien deklaratu den arau-haustea adostasunaren printzipioa urratzeagatik izan zen (DBLOren 6. artikulua); eta horren atzetik deklaratu ziren datu pertsonalak babesteko esparruko beste printzipio bi urratzeagatik: sekretu gorde beharra (DBLOren 10. artikulua) eta datuen kalitatearen printzipioa (DBLOren 4. artikulua).

- **Segurtasun Indar eta Kidegoei administrazio dokumentazioa lagatzea (PI15-013)**

Salatu zuten enplegatu publiko batek Segurtasun Indar eta Kidegoei laga ziela salatzaileari buruzko informazio administratiboa, bere adostasunik gabe. Segurtasun Indar eta Kidegoek ez zuten informazio lagatzeko eskabide zehatz eta arrazoiturik egin.

Beraz, Bizkaiko Foru Aldundiari otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.3. c) artikuluan jasotako arau-hauste astuna ezarri zitzaion, DBLOren 4.2 artikuluko helburuaren printzipioa urratzeagatik.

Administrazioak DBEBri jakinarazi zizkion horren aurrean hartutako neurriak.



▪ **Datu biologikoak tratatzea ukituaren adostasunik gabe (PI15-014)**

Osakidetzari zehapen bat ezarri zitzaioan, helburu baterako jasotako salatzailearen lagin biologikoak beste helburu baterako erabili zituelako interesdunak horretarako adostasunik eman gabe.

Halako portaerari arau-hauste oso astuna dagokio, eta otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.4. d) artikuluan jasotako arau-hauste astuna ezarri zitzaion, DBLOren 7.3. artikulua urratzeagatik.

Zehapenari buruzko ebazpenaren aurkako errekurtsua aurkeztu zuten administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, eta errekurtsua ezesten duen epaia apelatu egin zuten EAEko Justizia Auzitegi Nagusian.

▪ **Fitxategi bateko zenbait datu bidegabe atzitzea (PI15-015)**

Pertsona batek salatu zuen Lanbideko fitxategi batean zeuden bere datu pertsonalak modu bidegabean atzitu zituztela.

LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuari zehapena ezarri zitzaion, salatzailearen informazioa atzitzeagatik justifikatu gabeko zenbait helburutarako. Halako portaerari arau-hauste astuna dagokio, eta otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.3. c) artikuluan jasotako arau-hauste astuna ezarri zitzaion, DBLOren 6. artikuluko adostasunaren printzipioa urratzeagatik.

Lanbidek DBEBri jakinarazi zizkion horren aurrean hartutako neurriak.

▪ **Osasun datuak tratatzea dokumentu klinikoetan (PI15-016)**

Salatu zuten hainbat dokumentu klinikotan (ohiko analisiak, erradiologia bolantea eta Errehabilitazio Zerbitzurako kontsultarteko dokumentua) gehiegizko osasun datuak jartzen zituztela (patologia psikiatrikoaren diagnostikoa eta abar).

Osakidetzari otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.3. c) artikuluan jasotako arau-hauste astuna ezarri zitzaion, DBLOren 4. artikuluan jasotako datuen kalitateari buruzko printzipioa urratzeagatik, lortu nahi zen helbururako gehiegizko osasun datuak tratatu zituztelako.

▪ **Udaltzaingoaren eraikineko hainbat bulegotan instalatutako bideo zaintzako kamerak (PI16-001)**

Eibarko Udalarari otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.3. c) artikuluan jasotako arau-hauste astun bat eta 22.2. d) artikuluan jasotako arau-hauste arin bat ezarri zitzaizkion, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko Lege Organikoaren 4. eta 5. artikuluetan hurrenez hurren xedatutako datuen kalitateari buruzko printzipioa eta informaziorako printzipioa urratzeagatik.

Agentziak eskatu zion udalarari kentzeko datu pertsonalak babesteari buruzko araudiaren ezarpen eremuaren barruan zeuden kamerak. Udalak DBEBri jakinarazi zizkion horren aurrean hartutako neurriak.



- **Udal langileen ordainsariak udalaren web-orrian argitaratzea (PI16-002)**

Galdakaoko Udalak udal web-orrian argitaratu zuen udaleko langileen eta udal organismo autonomoetako langileen ordainsariei, antzinakotasunari eta gizarte prestazioei buruzko informazioa.

Galdakaoko Udalari otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.3. f) artikuluan jasotako arau-hauste astuna ezarri zitzaion, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 10. artikuluko sekretua gorde beharra urratzeagatik. Edozelan ere, Agentziak azpimarratu zuen portaera ez zela hain gaitzesgarria izan; hain zuzen ere, udalak, akatsaz jabetu orduko, jarri zituelako neurriak kaltea ahalik eta txikiena izan zedin.

- **Prebentzio Zerbitzuaren txostena lagatzea (PI16-003)**

EHUK Laneko Arriskuen Prebentzioko Zerbitzuaren txosten bat helarazi zien zenbait langileri. Txostena salatzailearena zen, eta hark ez zuen adierazi txostena lagatzeko adostasunik. Txostenean haren senitarteko biren izen-abizenak zeuden jasota.

Arau-hauste bat deklaratu genuen, DBLOren 10. artikulua ezarritako sekretu gorde beharra urratzeagatik. Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.2 e) artikulua xedatzen duenez, arau-hauste arina da.

Unibertsitateak DBEBri jakinarazi zizkion horren aurrean hartutako neurriak.

- **Udal web-orrian osoko bilkurako akta bat argitaratu zen, zehapen-espediente bati buruzko datuak barne (PI16-004)**

Urkabustaizko Udalari arau-hauste bat deklaratu genion, DBLOren 10. artikulua ezarritako sekretu gorde beharra urratzeagatik. Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.3 f) artikulua xedatzen duenez, arau-hauste astuna da

Udalari eskatu genion web-orritik kentzeko salaketako datu guztiak, eta neurriak hartzeko informazioa Interneteko bilatzaileen bidez eskuragarria ez dadin izan.

Udalak DBEBri jakinarazi zizkion horren aurrean hartutako neurriak.

- **Funtzionario baten diziiplina-espedientea udal intranetean argitaratzea (PI16-005)**

Hernaniko Udalari zehapena ezarri genion Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 6. artikuluan ezarritako sekretu gorde beharra urratzeagatik. Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.3 c) artikuluan arabera, arau-haustea larria da. Edozelan ere, azpimarratu genuen portaera ez zela hain gaitzesgarria izan; hain zuzen ere, udalak, akatsaz jabetu orduko, jarri zituelako neurriak kaltea ahalik eta txikiena izan zedin.



▪ Udal kiroldegian bideo zaintzako kamerak jartzea (PI16-006)

Zumarragako Udalak udal kiroldegia berruntzeko irudiak grabatu eta biltegiratu zituen, horretarako fitxategia sortu eta deklaratu baino lehen. Portaera horrek DBLOren 20. artikulua urratzen du, eta otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.3. a) artikulua xedatzen duenez, arau-hauste oso astuna da. Gainera, beldurtzeko asmoz jarri zituzten, zentroaren barne araudia betetzen zela ziurtatzeko. Erabiltzaileen irudiak helburu horretarako tratatzea ez da ondo ezkontzen DBLOren 4. artikuluan xedatutako proportzionaltasun irizpidearekin. Datuen kalitateari buruzko printzipioa urratu denez, udalari otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.3 c) artikuluko beste arau-hauste astun bat ezarri genion.

Udalari agindu genion kentzeko zentroaren barne araudia betetzen zela ziurtatzeko jarritako kamerak. Udalak ez dizkio DBEBri jakinarazi horren aurrean hartutako neurriak.

▪ Datu pertsonalak jasotzea txosten tekniko batean (PI16-007)

Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituren Zuzendaritzak txosten tekniko bat bidali zien salatzailerari eta obra proiektu beraren informazio-azterlanari buruzko alegazioak bidali zituzten gainontzeko pertsonari. Txostenean alegazioei emandako erantzunez gain, alegazio egile guztien izen-abizenak zeuden.

Arau-hauste bat deklaratu genuen, DBLOren 10. artikulua ezarritako sekretu gorde beharra urratzeagatik. Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.2 e) artikulua xedatzen duenez, arau-hauste arina da.

▪ Eraikin publiko bateko bideo zaintza sistema (PI16-008)

Eusko Jaurlaritzaren Bilboko eraikin batean eraikinaren kanpoko aldean bideo zaintzako sistema bat jarri zuten hainbat kamerarekin. Kanpoko aldean ipinitako kamerek bide publikoan gora eta behera zebilen jendearen irudiak hartzen omen zituzten. Irudiak ez ziren beharrezkoak eraikinaren sarbide fisikoa kontrolatzeko. Portaera horren ondorioz, Ogasun eta Finantza Saileko Baliabide Orokorren Zuzendaritzari otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.3. c) artikuluko arau-hauste astuna deklaratu genion, DBLOren 6.1 artikulua xedatutakoarekin bat.

Gainera, otsailaren 22.2 d) artikuluko arau-hauste arin bat ere deklaratu genion, instalatuta zeuzkaten informazio-txartelak ere ez zirelako egokiak DBLOren 10. artikuluan xedatutako informazio eginbeharra betetzeko.

Zehapen prozedura honen ebazpenean eskatu genion administrazioari legearen betekizun guztiak zeuzkaten informazio txartelak jartzeko, eta txartelak jartzeko bideoz zaindutako bulego eta gune guztietako sarreretan. Era berean, eskatu genion kanpoan instalatutako kamerak beste leku batean jartzeko edo norabidea aldatzeko, eraikinaren sarrerak kontrolatzeko behar den bide publiko zatia baino ez dezaten grabatu.

Administrazioak DBEBri jakinarazi zion hartu zituela agindutako neurriak.



- **Lan esparruko jazarpen eta pertsonen arteko gatazka kasuetan jarduteko protokolo baten baitako prozesu batean hartutako grabazioak lagatzea (PI16-010)**

Eusko Jaurlaritzako Justizia Administrazioaren Zuzendaritzari otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.3. c) artikuluan jasotako arau-hauste astuna ezarri zitzaion, DBLOren 6 artikuluko adostasunaren printzipioa urratzeagatik.

- **Udal web-orrian garajeen eskatzaileen zerrendak argitaratzea hainbat datu pertsonal eta guzti (PI16-011)**

Lasarte-Oriako Udalaren web-orrian garajeen eskatzaileen zerrendak argitaratu zituzten datu pertsonal eta guzti (osasun datuak, zerga arloko informazioa, ibilgailuen titulartasuna, eskatzailea enplegatua zen ala merkataria, profesionala ala industrial).

Zehapen prozedura izapidetzen ari zela, zerrendak kendu zituzten udal web-orritik.

Legeak baimendutako kasuetatik aparte datu pertsonalak zabaltzeagatik, otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.4.b) artikulua arau-hauste oso astuntzat jotzen duen DBLOren 11. artikuluan xedatutako zehapena deklaratu genion udalari.

- **Udalaren web-orrian argitaratzea udalerriko udaltzainen datu pertsonalak (PI16-012)**

Ermuko udal web-orrian, modu irekian eta ukituen adostasunik gabe, argitaratu zituzten udalerriko udaltzain guztien izen-abizenak, kategoria profesionala eta erakundean zuten telefonoa eta posta elektronikoa.

Udalari DBLOren 6.1. artikuluko zehapena ezarri genion. Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.3 c) artikulua xedatzen duenez, arau-hauste astuna da.

Udalari agindu genion kentzeko berehala udaltzainen eta korporazioko gainontzeko langileen datu pertsonalak web-orritik, ez badute askatasun osoz adostasuna adierazi, informazio guzti hori hedatzeko. Udalak DBEBri jakinarazi zion kendu egin zuela informazioa.

Baina, ebazpen zehatzaile honen aurkako errekurtoa aurkeztu zuten administrazioarekiko auzien jurisdikzioan.

- **Kontzejuen grabazioa eta tratamendua (PI16-013)**

Markinezko Administrazio Batzarrak kontzejuaren irudiak grabatu zituen horretarako fitxategia sortzeari buruzko araua argitaratu gabe aldizkari ofizialean.

Arau-hauste bat deklaratu genuen, DBLOren 20.1. artikulua urratzeagatik. Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.3.a) artikulua xedatzen duenez, arau-hauste astuna da.



▪ Segurtasun akatsa (PI16-014)

Justizia Administrazioaren Zuzendaritzak gorabehera informatiko baten beri eman zion (jatorria, eragina eta konponketa) Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, segurtasun akats horren ondorioz, zenbait informazio baimenik gabeko hirugarren batzuen eskura egon zen denbora tarte laburrez.

Portaera horri DBLOren 9.1. artikulua ezarritako zehapena dagokio. Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.3 g) artikulua arau-hauste astuna izan zen, ez zelako bermatu informazioaren segurtasuna. Edozelan ere, ebazpenak azpimarratu zuen zehatutako portaera ez zela hain gaitzesgarria izan; hain zuzen ere, administrazioak bere ekimenez jakinarazi ziolako segurtasun akats bat egon zela DBEBri, eta akatsaz jabetu orduko, jarri zituelako neurriak kaltea ahalik eta txikiena izan zedin.



5. EUSKADIKO DATUAK BABESTEKO ERREGISTROA

5.1. INFORMAZIOAREN ITURBURUA

Erabilitako datuak Fitxategien Erregistroaren datu-basean dute jatorria. Erregistroan DBEBn deklaraturako inskripzio guztiak daude, 2004an Erregistroa sortu zenetik gaur arte. Era berean, AEPDren Erregistroan 1994tik 2004ra arte egon diren mugimenduak ere jaso ditugu, bilakaera historikoa ikusteko.


Eranskinean (“Datu Pertsonalak Babesteko Erregistroaren Zifrak”) zenbait koadro daude ikusgai, 2016an izapidetutako deklarazioei buruzko informazio zehatzarekin.

5.2. IZAPIDETUTAKO INSKRIPZIOAK

2016an zehar 836 inskripzio eskabide izapidetu ditugu Euskadiko Datuak Babesteko Erregistroan. Fitxategiak sortzeko 231 eskabide (% 30), aldatzeko 264 eskabide (% 35) edo ezabatuzko 265 eskabide (% 35). 2016aren buruan Datuak Babesteko Erregistroan guztira 8.784 fitxategi aktibo zeuden (ikusi “Erregistroaren Zifrak” eranskineko C.1 koadroa).

Azpimarratzekoa da 2016an lehengo aldiz gertatu dela fitxategi aktiboen kopuruaren hazkundera negatiboa izatea.


Begiratzen badugu zenbat deklarazio egin zituzten hil bakoitzean 2016an, kopuruak desberdinak dira hil bakoitzeko. Hileko batez beste 64 deklarazio egin dituzte, eta ikusten da urtarrilean, ekainean eta irailean batez bestekoaren goitik ibili dela deklarazioen kopurua: 130 mugimendu baino gehiago. Otsailean, martxoan, uztailean eta abuztuan kontrakoa gertatu zen, deklarazio gutxi egin zirelako (ikusi C.3 koadroa).





5.3. ERREGISTROAREN GARAPEN HISTORIKOA

Ondoko grafikoan ikus daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko titulartasun publikoko fitxategi kopuruaren bilakaera historikoa:



2004ra arte egindako inskripzioak Datuak Babesteko Espainiako Agentzian egindakoak dira. 2004az geroztik egindako inskripzioak, ordea, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak egin ditu.

Grafikoa ikusita, hiru joera nabarmentzen dira, beste hainbeste epealditan mantendu direnak:

1. Esate baterako, hasierako aldian, hau da, 1994tik 2004ra bitartean, inskripzio gehienak AEPDren Erregistroaren funtzionamenduaren lehenengo urteetan egin ziren, eta urteko hazkundera oso neurritsua izan zen.
2. 2004an DBEB eratu zen, eta harrez geroztik urtero hazkunde iraunkorra eta oso nabarmena izan da, 2013 arte.
3. 2013tik aurrera hazkundea moteldu egin da, eta grafikoaren hazkunde-kurba berdinduz doala ikusten da.

Joera horiek aztertzeke, adierazle berri edo tasa berri batzuk sar daitezke, demografiaren esparruan erabili ohi dituzten adierazleen antzekoak:

- *Sortze tasa*: alden batez bestekoa (sortutako fitxategiak) kontuan hartutako epealdiko (urtea) fitxategi aktiboekin alderatuta.
- *Aldatze tasa*: aldatutako fitxategien batez bestekoa kontuan hartutako epealdi hasierako (urtea) fitxategi aktiboekin kopuruarekin alderatuta.




- *Hazkunde tasa*: fitxategien batez besteko garbia (sortutakoak ken ezabatutakoak) kontuan hartutako epealdi hasierako (urtea) fitxategi aktiboen kopuruarekin alderatuta.

Adierazle horiek azken urteotako joerak sailkatzeko lagungarriak dira:

Urtea	Inskripzioak			Mugim. guztira	Urteko saldoa	Fitxat. guztira	Tasak		
	Sortzea	Aldatzea	Ezabatz.				Sortzea	Aldatzea	Hazkundera
2016	231	264	265	760	-34	8.764	% 2,6	% 3,0	% -0,4
2015	331	310	195	836	136	8.818	% 3,8	% 3,5	% 1,6
2014	415	284	249	948	166	8.682	% 4,8	% 3,3	% 1,9
2013	801	350	156	1.307	645	8.516	% 9,8	% 4,3	% 7,9
2012	896	652	244	1.792	652	7.871	% 11,9	% 8,6	% 8,6

Zifra horiek kontuan hartu eta ateratzen diren tasen bilakaera modu grafikoan azalduta, ikusten dira DBEB 2004an sortu zenetik egon diren joerak:



Fitxategien sortze tasak behera egin du urtez urte: hasieran % 30ekoa zen eta % 5ekoa baino tasa txikiagoa izatera heldu da 2014az geroztik. Datu horrek adierazten duena da fitxategien arduradunak diren organismoen egoera "egonkorra" dela gaur egun, gehienek erregularizatu dituztelako ia fitxategi guztiak, eta fitxategi berriak sortzeko premia ere jaitsi egin delako.

Eta hori hala dela erakusten du hazkunde tasak. Hazkunde tasak fitxategien saldo gordina du kontua (sortutakoak ken ezabatutakoak), eta ikusten da % 5etik beherako joerari eusten diola. Gainera, estreinakoz, 2016an negatiboa izan da. Termino demografikoekin alderatuko bagenu, "hazkunde begetatiboa" duela esango genuke.

Edozelan ere, aldatze tasa beti egon da hazkunde tasaren azpitik, azken urteetan izan ezik, goitik egon delako. Pentsatzekoa da horixe izango dela egoera aurrerantzean, eta aldatze tasa izango dela erregistroaren jardueraren daturik adierazgarriena.




5.4. ERAKUNDE DEKLARATZAILEAK

Fitxategi bakoitzaren deklarazioan zehatz agertzen da jasota zein den fitxategiaren arduraduna (“administrazio organo” zehatza jaso), baina ustez egokiagoa da horiek multzokatzea, erakunde deklaratzailer nagusia kontuan hartuta, hau da, barruko egitura organiko zehatza zein den alde batera utzita. Beraz, erakundeak sailkatzeko, IFZ hartu da kontuan, desberdina dutelako, Eusko Jaurlaritzaren kasuan izan ezik, kasu horretan sail bakoitza organo deklaratzailer nagusitzat jotzen delako.


Irizpide horren arabera, deklaratzailer nagusien kopurua 454 da, eta fitxategiaren arduradunak 1.295 dira.

Datu horiek 2015ekoekin alderatuz gero, 5 organismo deklaratzailer nagusi gehiago daude (ikusi C.8 koadroa), eta 61 fitxategi arduradun gehiago daude (ikusi C.6 koadroa).



Toki administrazioa baino ez badugu aztertzen (ikusi C.9 koadroa), 322 Erakunde Nagusi daude. Kopuru hori udalen kopurua baino handiagoa da (251). Eta hori gertatu da udalerri batzuetan erakunde autonomiadunak eta zuzenbide publikoko beste erakunde batzuk daudelako.

Organismo deklaratzailer tipologiari erreparatuz gero, 2016an aldatu egin da organismo aktiboen joera. Aurreko urteetan toki administrazioak eta Eusko Jaurlaritza izan dira jardura handiena erakutsi duten organismoak. Baina, 2016an foru administrazioak eta horiei atxikitako edo menpeko erakundeak izan dira Erregistroari mugimendu gehien jakinarazi dizkioten erakundeak: guztira 382 mugimendu (guztia % 50).






Eusko Jaurlaritzak eta bere menpeko sailek eta organismoek 241 mugimendu jakinarazi dituzte: guztien % 32 (ikusi C.4 koadroa). Kontrara gertatu da toki erakundeek jarduerarekin, 2016an oso txikia izan baita.

5.5. INSKRIBATUTAKO FITXATEGI AKTIBOAK

2016an 8.784 fitxategi aktibo daude Euskadiko Datuak Babesteko Erregistroan. Hurrengo grafikoan ikus daiteke bakoitzaren “antzinakotasuna” edo fitxategi horien banaketa denboran zehar, hau da, fitxategi bakoitza zein urtetan deklaratu zen ikus daiteke grafikoan:



5.6. INSKRIBATUTAKO FITXATEGIEN BANAKETA, ERAKUNDEEN ARABERA

Inskribatuta dauden 8.784 fitxategietatik gehienak tokiko administrazioenak dira: guztira 6.638 fitxategi. Guztiaren % 73 dira. Azpimarratzekoa da asko jaitsi dela inskribatutako fitxategi kopurua bai Eusko Jaurlaritzaren esparruan (2015ean baino 12 gutxiago) bai toki administrazioaren esparruan (58 fitxategi gutxiago). Horrek esan nahi du 2015arekin alderatuta % 1 jaitsi dela inskripzioen portzentajea. Jaitsieraren arrazoi nagusia da fitxategiak ezabatu dituztela. Hain zuzen ere, askotan gertatu izan dena da fitxategi zaharrak helburu sorta zabalagoa duten fitxategi berri batzuetan txertatu dituztela.

5.7. INSKRIBATUTAKO FITXATEGIEN SEGURTASUN MAILAK


Jakin nahi bada zein den zenbait organismok datu babesari eskaintzen dioten dedikazioa, kontuan hartu beharreko adierazle bat da inskribatutako zenbat fitxategik ez duten esleituta segurtasun mailarik (ikusi C.19 koadroa).

2016aren bukaeran 267 fitxategi zeuden segurtasun maila deklaratu gabe. Era horretako fitxategien kopurua % 3,6 gutxitu da 2015eko kopuruarekin alderatuta (10



fitxategi gutxiago). 267 fitxategi horietatik 259 udaletako fitxategiak dira, eta 8 bakarrik dira foru aldundietako organismoetakoak.

Hurrengo grafikoan ikus daiteke zein den inskribatuta dauden fitxategien segurtasun maila eta noiz inskribatu zen lehen aldiz fitxategia.




Ikusten da segurtasun mailarik ez duten fitxategiak 1994 eta 1997 urteetan sortu ziren fitxategien multzo batekoak direla. Sortu zirenetik ez dute aldaketarik izan.

5.8. WEB ORRIAREN ERABILERAREN ESTATISTIKAK

2011az geroztik “Google Analytics” sistema erabiltzen ari gara web orriaren erabilera neurtzeko.


Lehenengo grafikoan ikusten da zenbat bisita izan zituen web orriak hilean, eta erabiltzaileek web gunera heltzeko zenbat banakako saio egin zituzten adierazten du. Azken hiru urteetako datuak daude.





Ikus daiteke batez beste 4.000 bisita dituela hilean DBEBren web orriak, eta kopurua jaitsi egiten dela udan. 2012ko urrian igoera nabarmen bat antzematen da, eta horren arrazoia da sare sozialei buruzko bideo batzuk argitaratu zirela.

Bigarren grafikoak erakusten du zenbat orri ikusi dituzten hilean, eta adierazten du web guneko orriak zenbat aldiz aurkeztu diren edo deskargatu diren. Bata bestearen gainean jarritako grafiko baten bidez islatu dugu informazio hori. Grafikoan oso argi ikus daiteke hilez hileko joera, eta urtez urte izandako bilakaerak alderatu daitezke horrela.





6. DATU BABESARI BURUZKO AZTERKETA SOZIOLOGIKOAK

6.1. DATU BABESARI BURUZKO AZTERKETA KUANTITATIBOA: HERRITARREK DATU BABESAREN INGURUAN DUTEN PERTZEPZIOARI BURUZKO AZTERLANA

Azterketa Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetearekin lankidetzan egin da. Informazio bilketa 2016ko azaroan egin zen, banan-banako telefono deien bidez, galdetegi egituratu eta itxi bat erabilita, eta Euskal Autonomia Erkidegoko populazio osoa ordezkatzeko duen lagin adierazkorrari galdetu zaio.

Azterlanaren xedea da jakitea zein jarrera eta iritziz duten EAeko herritarrek datu pertsonalen babesaren arloan. Zehatzago esanda, beste gai batzuen artean, honakoei buruzko galderak egin ditugu: datu pertsonalen babesari buruzkoak, antzemandako segurtasun maila, tartean dauden eragileak, datu pertsonalak eta teknologia berriak, datu pertsonalen lagapenak eta sare sozialak, legearen eta DBEBren gaineko ezagutza, eta, azkenik gure eskubideen gaineko ezagutza.

Azterketaren emaitzak www.avpd.eus, web orrian daude ikusgai, baina hemen zerrendatuta daude emaitza aipagarrienak:

- Datu pertsonalen babesari buruzko kezka oso apurka zabaldu da azken urteotan. 2008an % 37koa eta gaur egun % 43koa.
- Populazioaren % 74k kezka handia agertzen du Interneten zerbitzuak doan lortzeagatik ematen duten informazio pertsonalaz egin dezaketen erabilera dela eta.
- Internet bidez egin daitezkeen gestioekiko konfiantza handitu egin da. % 37k uste du oso segurua edo nahikoa segurua dela bankuko eragiketarako Interneten bidez; eta % 29k uste du segurua dela txartelaren zenbakia ematea Interneten erosketarako egiteko.
- Populazioaren % 57k segurtasuna pribatutasunaren aurretik jartzen du, eta % 30ek kontrako uste du.
- Aurreko urteetako antzeko kopuruak, hau da, populazioaren % 54k uste du erakunde publikoek herritarren informazio gehiegi dutela. Baina, gutxi bada ere, hasi egin da enpresa pribatuak guri buruzko informazio pertsonal gehiegi dutela uste dutenen kopurua (% 66).
- Erakunde publikoei dagokienez, datu pertsonalen erabilera dela eta, konfiantza handiena ematen dutenak dira Osakidetza (% 94), Gizarte Segurantzak (% 85) eta Eusko Jaurlaritza (% 79). Aldiz, telefono eta interneteko konpainiak dira konfiantza gutxien ematen dutenak (% 13).
- Gero eta gehiago erabiltzen dira orain telefono mugikorretarako segurtasun tresnak: % 86k PINa du, % 56k aktibatutako pasahitza du, % 42k antibirusa.
- Zaintzako kamerei buruz, antzekoa da aldekoen portzentajea leku publikoetakoak izan (% 56) ala leku probatukoetakoak izan (% 58).



- Ahazteko eskubidea: gehienek (% 89) uste dute herritar anonimoek ahazteko eskubidea eduki behar dutela. Baina, % 51k baino ez dute gauza bera pentsatzen kargu publikoetan dauden pertsonen buruz, eta % 37k dio horiek ez dutela halako eskubiderik eduki behar.
- Sare sozialak: populazioaren bi herenek segitzen dute pentsatzen ez dela behar bezala informatzen datu babesari buruz. Aldatzen ari da, ordea, datu pertsonalen zabalkundea mugatzea gero eta zailago dela uste dutenen kopurua (2006an % 76k uste zuen erraza zela, eta orain % 40k).
- Datu babesari buruzko legediaren gaineko ezagutza ez da aldatu (% 51k dio badakiela badagoela datu babesari buruzko legeren bat).
- Bereziki babestutako datuak: % 52k ez daki bereziki babestutako datuak daudenik, adibidez, osasun datuak, ideologia datuak, sinesmenei buruzkoa eta abar.
- AZETA eskubideak: datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta datuei aurka egiteko datuak orain ere ez dira oso ezagunak.



7. PRIBATUTASUNAREN BALIOAREN ETA AGENTZIAREN JARDUEREN ZABALKUNDEA

7.1. DATU BABESAREN EUROPAKO EGUNA (2016KO URTARRILAREN 28A)

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak ere egun hori ospatu du eta [Datu pertsonalen babesa / La protección de datos personales](#) azterketa kuantitatiboa argitaratu du ospatzeko. Azterketa, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak eta Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak egiten dute elkarlanean

7.2. DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOA KOMUNIKABIDEETAN ETA INTERNETEN

7.2.1. Prentsa idatzia

Data	Izenburua	Komunikabidea
2016/01/13	Elkarrizketa Iñaki Parienteri	Diario Vasco
2016/01/18	“Zordunen zerrenda argitaratzea gehiegizko neurria da eta xedea ez dago argi. Elkarrizketa Iñaki Pariente de Pradari, jurista, eta oraintsu arte Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendaria	Expansión
2016/01/18	“Denok gaude gardentasunaren alde, harik eta gure datuak argitaratzen dituztenera arte” [Elkarrizketa] Iñaki Pariente, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariari	Diario Vasco
2016/01/19	Elkarrizketa, Iñaki Parienteri, DBEBren zuzendariari	El Correo
2016/01/27	Margarita Uriak bere gain hartu du Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendaritza	Noticias de Gipuzkoa
2016/01/27	Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariaren kargu uztea, berak hala eskatuta	ABC
2016/01/27	Margarita Uriak bere gain hartu du Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendaritza	Noticias de Gipuzkoa
2016/02/01	Ertzaintzari uniformean ipintzen diren eta ertzainen jarduerak grabatzen dituzten kamerak interesatzen zaizkio	Diario Vasco
2016/02/02	Sarean datuak modu eraginkorrean babesteko protokolo bat saritu dute	eSMARTCITY.es



Data	Izenburua	Komunikabidea
2016/02/02	Eusko Jaurlaritzak Margarita Uria izendatu du Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendari	20minutos.es
2016/02/02	Eusko Jaurlaritzak Margarita Uria izendatu du Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendari	Deia
2016/02/02	Eusko Jaurlaritzak Margarita Uria izendatu du Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendari	Diario Álava
2016/02/20	Kamera begiluzea eta ezkutukoa	El Correo
2016/03/09	Tiroketa iPhone Corralen	Berria
2016/03/15	Nola blindatu “Gauzen Internet”	Noticias de Álava
2016/03/23	Eusko Jaurlaritzak Datuak Babesteko Euskal Bulegoarekin batera lan egiten du bermatzeko herritarren informaziorako sarbidea	20minutos.es
2016/03/23	Eusko Jaurlaritzak Datuak Babesteko Euskal Bulegoarekin batera lan egiten du bermatzeko herritarren informaziorako sarbidea	Europa Press
2016/03/24	Lakuak estutu egin du Datuak Babesteko Euskal Bulegoarekiko lankidetza	Noticias de Álava
2016/03/24	Lakuak estutu egin du Datuak Babesteko Euskal Bulegoarekiko lankidetza	Deia
2016/05/18	Bartzelonako Abokatuen Elkargoan (ICAB) izango da Espainiako Pribatutasuneko Elkarte Profesionalaren IV. Biltzarra	La Vanguardia
2016/05/31	Udala ikertzen ari da hauteskunde mahaletako zozketen zerrenden filtrazioa	Noticias de Álava
2016/05/31	Gasteizko Udala ikertzen ari da datozen hauteskunde mahaletako zozketen zerrenden filtrazioa	Noticias de Gipuzkoa
2016/05/31	Gasteizko hauteskunde-mahaletako zozketen emaitzak filtratu dituzte sare sozialetan	Deia
2016/05/31	Gasteizko Udala ikertzen ari da datozen hauteskunde mahaletako zozketen zerrenden filtrazioa	Noticias de Gipuzkoa
2016/06/03	Udaletik egindako datu pertsonalen filtrazioa heldu da poliziara	Noticias de Álava



Data	Izenburua	Komunikabidea
2016/06/04	Ekainaren 26ko hauteskundeetako mahiak: Gasteizek segitzen du mahaletako filtrazioa ikertzen	Noticias de Álava
2016/06/07	Hori pertsonak salatu dute hauteskunde-mahaien argitalpena Whatsapp bidez	Gasteizhoy
2016/06/29	Ermuak Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zehapen bati egin beharko dio aurre	El Correo
2016/07/22	Galdakaok bere datuen babesa indartuko du, arau-hauste larri bat egin ostean	El Correo
2016/07/26	Guardia Zibilak yihadismoari buruzko ikerketak egiteko atzerritarren zerrendak eskatu ditu	eldiario.es
2016/08/30	Datuak Babesteko Bulegoak belarritik tira egin du ekainaren 26ko hauteskunde-mahaiak filtratzeagatik	El Correo
2016/11/15	Eusko Jaurlaritzako goi-kargudunek baimena eskatu beharko dute esparru pribatura itzultzeko	El Correo

7.2.2. Irratia eta telebista

Data	Izenburua	Komunikabidea
2016/01/12	Elkarrizketa, Iñaki Parienteri, DBEBren zuzendariari	COPE
2016/01/19	Elkarrizketa, Iñaki Parienteri, DBEBren zuzendariari	COPE
2016/01/22	Elkarrizketa Iñaki Parienteri “Aquí tecnología” saioan	Onda Cero
2016/01/26	Elkarrizketa, Iñaki Parienteri, DBEBren zuzendariari	COPE
2016/01/27	Elkarrizketa, Iñaki Parienteri, DBEBren zuzendariari; eta Jasone Astorgari, DBEBk saritu duen bere doktoretza-tesia dela-eta	Radio Vitoria
2016/01/27	Datu babesa: pribatutasunerako eskubidea Big Dataren garaian	Radio Euskadi
2016/01/28	Elkarrizketa, Iñaki Parienteri, DBEBren zuzendariari	Radio5Gasteiz



Data	Izenburua	Komunikabidea
2016/01/28	Elkarrizketa Iñaki Parienteri, DBEBren zuzendariari, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendaritza utziko duenean	Radio Nacional
2016/02/12	Sentsoreak, robotak eta segurtasuna dira “Teknopolis” saioaren ardatzak	EITB
2016/02/23	Margarita Uria da Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendari berria	Onda Vasca
2016/03/17	Elkarrizketa Joseba Etxebarriari, DBEBren idazkari nagusiari	Euskadi Irratia
2016/04/06	Uria: “Kamerak jartzen badira, jendeari jakinarazi egin behar zaio”	ETB2
2016/05/28	Elkarrizketa, Margarita Uriari, DBEBren zuzendariari	Radio Euskadi
2016/06/02	Datu babesa araudi berria	EITB
2016/06/09	Elkarrizketa, Margarita Uriari, DBEBren zuzendariari	Radio Vitoria
2016/06/07	Gasteizko hauteskunde-mahaietako filtrazioa epaitegietara heldu da	Cadena Ser
2016/06/09	Elkarrizketa, Margarita Uriari, DBEBren zuzendariari	Radio Vitoria
2016/07/06	Elkarrizketa Margarita Uriari, DBEBren zuzendariari, 18 urtetik gorakoen gurasoek haien nota eskuratzeari buruz	ETB1 (Gaur egun)

7.2.3. Blogak eta web orriak

Data	Izenburua	Komunikabidearen izena
2016/01/11	Datuak Babesteko Euskal Bulegoa eta Datu Pertsonalak Babesteko III. Sarien banaketa	Pribatua bloga
2016/01/15	El blog de García Larragan y Cía Honakoa izan zen DBEBren jardunaldia: “Datu babesaren bilakaera”	ManQit : el blog de García Larragan
2016/01/18	Datuak Babesteko Europako Erregelamenduak bertan behera utzi du enpresek zuten fitxategiak inskribatzeko obligazioa [“Datu Babesak azken garaian izan duen bilakaera eta etorkizuna” izeneko Jardunaldian. DBEBk antolatuta]	Noticias jurídicas



Data	Izenburua	Komunikabidearen izena
2016/01/20	2015eko DBEB Sari banaketaren kronika	Privacidad Lógica
2016/01/20	Privacidadlogica.es elkartearen zenbait gomendio, lanean pribatutasuna errespetatzeko (1. atala). Pribatutasun ilogikoaren hainbat adibide. Egileak: L. Salvador eta A. Pacheco	Privacidad Lógica
2016/01/20	Privacidadlogica.es elkartearen zenbait gomendio, lanean pribatutasuna errespetatzeko (2. atala). Pribatutasun ilogikoaren hainbat adibide. Egileak: L. Salvador eta A. Pacheco	Privacidad Lógica
2016/01/21	Jasone Astorga, datu babesaren arloko saritua	UPV-EHU
2016/01/26	Jaurlaritzak Datuak Babesteko Zuzendari kargutik kendu du, berak hala eskatuta, Jose Ignacio Pariente de Prada (2016-01-26ko Gobernu Kontseilua)	Irekia (Gobierno Vasco-Eusko Jaurlaritza)
2016/02/04	DBEBk saritu du UPV/EHUn sortutako sentsoreetarako protokolo berri bat	SPRI
2016/02/02	Irekia (Gobierno Vasco-Eusko Jaurlaritza) Eusko Jaurlaritzak Margarita Uriak izendatu du Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendari (2016-02-02ko Gobernu Kontseilua)	Irekia (Gobierno Vasco-Eusko Jaurlaritza)
2016/03/23	Josu Erkorekak eta Margarita Uriak euren lan taldeak bildu dituzte, aurrera begirako elkarlana bideratzeko	Irekia (Gobierno Vasco-Eusko Jaurlaritza)
2016/05/31	Gasteizko hauteskunde-mahaietako kideen datuak filtratu dira	EITB
2016/07/12	VII. Pribatua Jardunaldia (III) - “Primera Aproximación al nuevo Reglamento Europeo de Protección de Datos / Europako Datuen Babeserako Erregelamendu berriaren Lehen Hurbilketa” - #jPrib7	Pribatua bloga
2016/10/15	Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Sarien deialdia	Pribatua bloga



8. EZAGUTZA TRUKATZEKO ETA PRESTAKUNTZAKO JARDUERETAN PARTE HARTZEA

8.1. HITZALDIETAN, MINTEGIETAN ETA BESTELAKO PRESTAKUNTZA JARDUERETAN PARTE HARTZEA

▪ Datu babesari buruzko jardunaldia (2016-01-15. Bilbao)

DBEBk antolatu zuen jardunaldia eta datu pertsonalak babesteko eskubidearen orainaz eta etorkizunaz aritu ziren. Hitzaldien ostean, **DBEBren Sarien III.** Edizioko sari banaketa egin zen.

▪ Segurtasuneko eta Osasuneko Datuen Babesari buruzko XIII. Foroa (2016-02-10 / 2016-02-11. Murtzia)

Osasunaren Informatikako Espainiako Elkarteak (SEIS) urtero antolatzen du biltzar hau, osasunaren esparruko profesionalek, datuak babesteko agintaritzek eta esparru teknologikoak elkartzeko gune bat izan dezaten, eta laguntzeko osasun arretan teknologiak modu seguruan erabiltzen. DBEB programa-batzordeko kide laguntzaileetako bat da.

Aurten foroak izenburu hau izan du: “Segurtasunaren eta pribatutasunaren erronkak osasun arreta integralean eta tokikoan”. Bertan aztertu dute, esparru soziosanitarioan zerbitzuak jasotzen dituzten pertsonei arreta integrala ematean, zertan diren pribatutasunaren eta datu pertsonalen babesaren alderdiak.

DBEBren izenean Pedro Alberto González González, Fitxategien Erregistroa eta Auditoria zerbitzuburuak eta Juana M^a. Vegas letratuak hartu zuten parte, honako gaiei buruzko saioetan “Datuen azterketa masiboko teknikak ezartzea informazio soziosanitarioari” eta “Hainbat kasu praktikoa: datuak babesteko agintaritzen esperientzia esparru soziosanitarioan”.

▪ Gardentasun publikoari buruzko jardunaldia (2016-04-21. Bilbao)

Bizkaiko Abokatuen Elkargoak antolatu zuen jardunaldia: gardentasunari buruzkoa esparru publikoan. Román Intxaurtietak, DBEBren letratuak hitzaldi bat eman zuen DBEBk gaiari buruz duen iritzia azalduz.

▪ Pribatutasunari buruzko IV. Biltzar Nazionala (2016-05-19 / 2016-05-20. Bartzelona).

APEP-Espainiako Pribatutasuneko Elkarte Profesionalak antolatu zuen Biltzarra. Datu babesaren arloko araudiaren berrikuntzari buruzko izan zen, eta bertan Erregelamenduarekin zer ikusia zuten hainba gai landu zituzten: “Pribatutasun Ezkutua” (Privacy Shield), zibersegurtasuna eta abar.

▪ Jardunaldia: “Datuen nazioarteko transferentziak: Safe Harbournetik Privacy Shieldera”(2016-05-17. Vitoria-Gasteiz)

Zuzendariak eta Fitxategien Erregistroa eta Auditoria zerbitzuburuak hartu zuten parte jardunaldian. Informazioaren teknologien arloko profesionalei eta datu babesaren arloko enpresetako langileei zuzendutako jardunaldia zen. Nazioarteko



datu transferentziekin lotutako gaiak aztertu zituzten, batez ere hodeiko zerbitzuei buruz, zerbitzuak Privacy Shield delakoaren bidez arautuko direlako.

▪ **VII. Pribatua Jardunaldia: Hurbilketa bat Datuak Babesteko Europako Erregelamendura (2016-06-09. Getxo)**

Europar Batasunak Datuak Babesteko Europako Erregelamendua onartu zuela eta, Pribatua elkarteak antolatutako jardunaldia. Biscaytik fundazioaren egoitzan egin zen, Getxon. DBEBk parte hartu zuen hitzaldi honekin: “Kontrol Agintaritzak eta Tratamendu Arduradunak”. Hitzaldia Fitxategien Erregistroa eta Auditoria zerbitzuburuak eman zuen.

▪ **Datu babesari eta gardentasunari buruzko hitzaldia (2015-06-16. Eibar)**

Aholkularitza Juridiko eta Ikuskaritzako letradu batek eman zuen.

▪ **Jakiteko eskubidearen Nazioarteko Eguna (2016-09-28. Bilbao)**

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak jardunaldian hartu zuen parte. Bizkaiko Abokatuen Elkargoak antolatu zuen jardunaldia, Jakiteko eskubidearen Nazioarteko Eguna ospatzek ekitaldien baitan.

▪ **Datuak Babesteko Jardunaldia (2016-10-20 / 2016-10-21. Vitoria-Gasteiz)**

Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Sailak antolatu zuen jardunaldia, DBEBren zuzendariak aurkeztu zuen eta bertan parte hartu zuten Fitxategien Erregistroa eta Auditoria zerbitzuburuak eta Aholkularitza Juridiko eta Ikuskaritzako letradu batek.

▪ **“Delituak ikertzeko bermeen sistemak versus Teknologia berriak” mintegia (2016-10-24. Bilbao)**

Jardunaldia Sabino Arana Fundazioak antolatu eta DBEBren zuzendariak koordinatu zuen, teknologia berrien erabilerak delituak ikertzeko bermeen sistemarekin duen zer ikusiari buruz eztabaidatzeko.

▪ **XXIX. Nazioarteko Estatistika Mintegia, EUSTATEk antolatua (2016-11-21. Vitoria-Gasteiz)**

Estatistikako Euskal Institutuak (EUSTAT) antolatu zuen mintegia, eta Fitxategien Erregistroa eta Auditoria zerbitzuburuak datuen tratamendu masiboari buruzko azalpenak eman zituen honako hitzaldiarekin: “Konfidentzialtasuna Big datan”.

▪ **Tokiko Administrazioa eta Datuen Babesari buruzko BiscayTIK Jardunaldia (2016-12-14. Getxo)**

Jardunaldia BiscayTIK fundazioak antolatu zuen. Agentziak eta bertako zenbait langileek hartu zuten parte, bai antolaketa lanetan bai hitzaldiak ematen. Jardunaldiak bi atal izan zituen. Lehenengoa zen Europar Batasunak berriki onartutako eta argitaratutako Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrari buruzkoa. Eta bigarren atalean azaldu zituzten DBEBk udal esparruan egindako irizpen eta ebazpen garrantzitsuenak.



- **Segurtasunari eta Datu Pertsonalak Babesteari buruzko VIII. Jardunaldia (2016-12-15. Vitoria-Gasteiz)**

Vitoria-Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskolak (UPV/EHU) antolatu zuen jardunaldia, eta DBEBren Fitxategien Erregistroa eta Auditoria zerbitzuburuak hartu zuen parte.

- **Komunikazioen Ingeniaritza Masterra (2016-12-22. Bilbao)**

Telekomunikazio Ingeniarien Goi-Eskola Teknikoa (UPV/EHUI). Bertan hartu zuten parte zuzendariak, Fitxategien Erregistroa eta Auditoria zerbitzuburuak eta Aholkularitza Juridiko eta Ikuskaritzako letradu batek.

8.2. PRESTAKUNTZA JARDUERAK: IKASTAROAK

- **Datu babesari eta segurtasun neurriei buruzko oinarritzko ikastaroa (2016-02-19 eta 2016-02-22. Bilbao)**

Datu babesari eta segurtasun neurriei buruzko ikastaro bat izan zen, Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeko langileei zuzenduta zegoen eta Fitxategien Erregistroa eta Auditoria unitateko eta Aholkularitza Juridiko eta Ikuskaritzako zenbait teknikariek eman zuten.

- **Bizkaiko Abokatuen Elkargoaren Abokatutzaren jarduerarako Unibertsitate Masterreko datu babeserako modulua (2016-03-01, 2016-03-10, 2016-03-11, 2016-03-16. Bilbao)**
- **Datu pertsonalak babesteari buruzko ikastaroa (2016-04-12, 2016-04-20, 2016-04-20, 2016-05-17, 2016-05-26. Bilbao, Santurtzi)**

BFAko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeko (GUFE) zenbait profesional talderi zuzendutako datu babesari buruzko ikastaroa, euskaraz eta gaztelaniaz.

- **Datu babesari eta gardentasunari buruzko ikastaroa (2016-04-19, 2016-04-26. Vitoria-Gasteiz)**

Arabako Foru Aldundiko langileei zuzendutako ikastaroa. Aholkularitza Juridikoa eta Ikuskaritza unitateko zenbait teknikariek eman zuten.

- **Datu babesari buruzko oinarritzko ikastaroa (2016-10-4 eta 2016-10-6. Donostia-San Sebastián)**

Gipuzkoako Foru Aldundiko langileei zuzendutako ikastaroa. Aholkularitza Juridikoa eta Ikuskaritza unitateko zenbait teknikariek eman zuten.

- **Datu babesari buruzko ikastaro aurreratua (2016-11-2 eta 2016-11-7. Donostia-San Sebastián)**

Gipuzkoako Foru Aldundiko langileei zuzendutako ikastaroa. Aholkularitza Juridikoa eta Ikuskaritza unitateko zenbait teknikariek eman zuten.

- **Datu babesari buruzko oinarritzko ikastaroa (2016-10-27. Bilbao)**

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzako langileei zuzenduta.



- **Datu babesari buruzko oinarrizko ikastaroa (2016-11-24. Bilbao)**
Euskal Estatistika Institutuko (EUSTAT) langileei zuzenduta.



9. BESTE ADMINISTRAZIO, AGENTZIA ETA ERAKUNDE BATZUEKIKO HARREMANAK ETA LANKIDETZA

9.1. DATUAK BABESTEKO ESPAINIAKO AGENTZIAREN KONTSEILU A HOLKU-EMAILEAN PARTE HARTZEA

DBEBren zuzendari Iñaki Pariente, AEPDren Kontseilu Aholku-emailearen kidea zenez, Kontseilu Aholku-emailearen urtarilaren 21eko bileran egon zen. Gerora, 16/2016 Dekretuaren bidez, Margarita Uria izendatu zuten EA Eren ordezkari AEPDren Kontseilu Aholku-emailean, eta uztailearen 13ko bileran berak hartu zuen parte.

9.2. LANKIDETZA, DATUAK BABESTEKO BESTE AGENTZIA ETA AGINTARITZA BATZUEKIN

- Bilera bat Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren zuzendariarekin (2016-03-02. Madril)
- Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrari (EB) buruzko Lan Taldearen bilera (2016-06-22, 2016-07-14, 2016-10-06, 2016-11-28. Madril)

DBEBk, Datuak Babesteko Espainiako Agentziak eta Datuak Babesteko Kataluniako Agintaritzak eratutako lan talde orokor bat da, eta lan taldearen asmoa da aztertzea nola ezarri Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra, eta aurreikustea etorkizuneko garapenak eta egin beharko diren lege-egokitzapenak.

- DBEOko Segurtasun Neurriei buruzko Lan Taldearen bilera (2016-07-13. Madril)

Datuak babesteko hiru agintaritzek osatutako azpi lan talde bat da, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren segurtasun neurriei buruzko ikuspegi berria nola ezarri aztertzeko.

- “Segurtasuna eta Pribatutasuna Interneten” liburuxkaren aurkezpena (2016-10-07. Madril)

DBEBren zuzendariak liburuxkaren aurkezpenean hartu zuen parte. Egileak dira AEPD eta Zibersegurtasunerako Institutu Nazionala (INCIBE).

9.3. HARREMANAK EUSKO LEGEBILTZARRAREKIN

- DBEBren zuzendari Margarita Uriaren aurkezpena Eusko Legebiltzarrean (2016-02-22. Vitoria-Gasteiz)
- DBEBren 2015eko Memoriaren eta “Legebiltzarraren Jarduera eta Datu Pertsonalen Babesa. DBEBren Doktrina” liburuaren aurkezpena (2016-07-26. Vitoria-Gasteiz)

9.4. HARREMANAK BESTE ERAKUNDE BATZUEKIN

- *Deustuko Unibertsitatea eta Bizkaiko Abokatuen Elkargoa*



- Bizkaiko Foru Aldundia eta BiscayTIK
- Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia sailburua
- Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza
- “Abokatutza-Euroeskualdea” egitasmoa
- Osakidetza
- Arabako Foru Aldundia
- Osasunaren Informatikako Espainiako Elkarte (SEIS)
- Gogora (Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua)

9.5. ALIANTZA ESTRATEGIKOAK

- Hitzarmena EJIekin: Addenda 2016

2016an eguneratu egin dugu 2004az geroztik Agentziak Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartearekin (EJIE) hitzartuta duen lankidetza hitzarmena, DBEBri zerbitzu eta dotazio informatikoak eta komunikazioak emateko. Hitzarmenak iraupen mugagabea du, eta zerbitzua emateko baldintzen aldaketak eta baldintza ekonomikoak urtero eguneratu behar izaten dira, EJIE eta Eusko Jaurlaritzarekin lotzen dituen kontratu-programan (egungo “Kudeaketa-gomendioan”) zehazten diren baldintza arabera.



10. BARNE KUDEAKETA

10.1. BIKAINASUNA ETA BERRIKUNTZA

10.1.1. Konpromisoa DBEBren kudeaketaren etengabeko hobekuntzarekin

Agentzia Euskalitekin batera aritzen da lankidetzan, kudeaketa elementuak eta laneko prozesuak eta metodoak hobetzeko. Era berean, antolatzen diren prestakuntza ikastaroetan hartzen du parte.

DBEBk Q-epean ere hartzen du parte. Q-epea, kudeaketako Bikaintasunaren bilaketan konpromisoa duten Euskadiko zenbait erakunde publikok osatutako taldea da (administrazioa eta enpresa publikoak), kudeaketako praktika egokiak partekatzeko eta zabaltzeko, laneko dokumentazioak modu irekian trukatzeko, beste erakunde publiko eta pribatuetako zuzendaritza taldeetako kideak gonbidatzeko, esperientziak konpartitzeko eta aurrerapen horiek beste erakunde publiko batzuetara hedatzeko asmoz jende aurreko ekitaldiak antolatuzeko.

10.1.2. Lankidetza Innobasquerekin berrikuntza erdiesteko

DBEBk 2008az geroztik hartzen du parte Berrikuntzaren Euskal Agentzian (Innobasque).

10.1.3. DBEBko pertsonen ikaskuntza, DBEBren kudeaketa hobetzeko

DBEBko kideen prestakuntza jardueretako parte hartzea eta informazioaren eta ezagutzaren kudeaketa bi eratara ulertu behar da; batzuetan ikastun (ikasleak) izaten direlako eta beste batzuetan esparruko adituak izaten direlako (irakasleak).

Bulegoko pertsonen kalitatearen arloan beharrezko ezagutzak izan behar dituztelako ustea berretsiz, 2016an etengabea izan da prestakuntza jarduera berriekiko ikaskuntza aktiboa.




10.2. ORGANIGRAMA ETA PERTSONALAREN PLANTILLA

10.2.1. Organigrama



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos





Hona hemen 2016ko abenduaren 31n plantillaren egoera sexua kontuan hartuta:

Kategoria	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira
Zuzendaria	0	1	1
Goi-mailako teknikariak	7	4	11
Administrariak	2	2	4
Guztira	9	7	16

10.2.2. Egitura organikoa eta Lanpostu Zerrenda (LP)

▪ Lanpostu zerrenda

2013ko ekainaren 17ko Ebazpenak onartu zuen Lanpostu Zerrenda egokitua eta eguneratua, izapidetutako aldaketa guztiak jasoz, indarrean dauden prozeduren arabera.

10.2.3. 2016ko Aurrekontua

2/2004 Legearen 13. artikulua honakoa ezartzen du: “Datuak Babesteko Euskal Bulegoak urtero-urtero aurrekontu-aurregitasmoa egin eta onartu beharko du. Gero, Eusko Jaurlaritzara bidali beharko du, han, behar bezain ondo bereizita, Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan sar dezaten, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu-sistema arautzen duten legeen arabera”.

10.2.4. 2016ko aurrekontu exekuzioa

GASTUEN AURREKONTUA

Sailkapena KAPITULUA	KAPITULUEN IZENA	Kredituak guztira	Betebeharrak	Egindako ordainketak	Ordaintzeke	Betearazpen egoera
1	Langileen gastuak	1.106.319,00	1.015.338,20	1.000.980,02	14.358,18	% 91,78
2	Ohiko ondasunetako eta zerbitzuetako gastuak	474.337,00	364.934,75	351.970,73	12.964,02	% 76,94
6	Benetako inbertsioak	32.000,00	12.018,93	12.018,93		% 37,56
8	Finantza aktiboak	4.700,00				
	Gastuen batura guztira	1.617.356,00	1.392.291,88	1.364.969,68	27.322,20	% 86,08

Gastuaren exekuzioa dela-eta, zera aipatu beharrean gaude:

- I. Kapituluaren % 91,87 exekutatu da, urtean zehar hainbat lanpostu hutsik egon direlako. Nahiz eta hautaketa publikoak izapidetu behin baino gehiagotan, oso zaila da lanpostuak betetzea.
- II. Kapituluaren % 76,94 exekutatu da, eta horren arrazoia da, batez ere, administrazio egitura arruntaren funtzionamendutik eratorritako gastuen



exekuzioa hobetzeko erabili dela, eta azterlan gutxiago egin direla; izan ere, aurreikusitako bietatik bat bakarrik egin baita.

- VI. Kapituluen % 37,56 exekutatu da, eta horren arrazoia da beharrezkotzat jo diren bulegoko ekipoak bakarrik erosi direla. Aplikatibo informatiko batzuk birdiseinatu egin behar dira, eta, horren ondorioz, ez dira gauzatu 2016rako aurreikusitako inbertsioak.
- Azkenik, VIII. Kapitulan planteatutako kreditu erreserbaren helburua da langileei maileguak lagatzea, baina azkenean ez da erabili.

SARREREN AURREKONTUA

Sailkapena KAPITULUA	KAPITULUEN IZENA	Behin betiko aurreikuspenak	Eskubide garbiak	Egindako sarrerak	Kobratzeke	Betearazpen egoera
3	Tasak eta bestelako sarrerak					
4	Ohiko transferentziak	1.337.392,00	1.337.392,00	1.337.392,00		% 100
5	Ondare-sarrerak	1.000,00				
6	Benetako inbertsioak besterentzea		3.343,23	3.343,23		
7	Kapital transferentziak	11.571,00	11.571,00	11.571,00		% 100
8	Finantza aktiboak	267.393,00				
	Sarrerren batura guztira.	1.617.356,00	1.352.306,23	1.352.306,23		% 83,61

"Transferentzia arruntak" eta "Kapital transferentziak" ataletakoak DBEBk dituen baliabide ekonomiko nagusietan dute jatorria, eta nagusiki Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura urtero ezartzen diren aurrekontu esleipenekin datoz bat.

2012az geroztik, kontuan hartuta Eusko Jaurlaritzako Aurrekontu Zuzendaritzak, Euskadi jasaten ari den krisi ekonomikoaren ondorioz eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorraren diru-sarrera urrien eraginez, egin zigun eskabidea, jasotzen dugun ekarpena % 10 baino gutxiagokoa da, 2012ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorra onartu zituen abenduaren 23ko 6/2011 Legean jasota zegoenarekin alderatuta, erabilgarritasunaren eta ekitaldi horretako aurrekontu exekuzioa gauzatzeko irizpideen arabera.

Ondorioz, eta aurreko ekitaldietan metatutako diruzaintzaren soberakina ikusita, uste dugu zati bat honako helburuetarako erabili behar dugula oso-osorik:

- Batetik, Eusko Jaurlaritzak Datuak Babesteko Euskal Bulegoari egiten dion ekarpen gutxituarekin jarraitzeko.
- Bestetik, 2016ko kudeaketa planean aurreikusitako proiektuak burutzeko, kontuan izanda ez gurela finantziatorik, ez bazen gure geldikinaren zati bat erabilita.



“Ondare sarreraren” exekuzioari dagokionez, aipatu behar da bankuko kontu korranteetako interesak direla eta, ez dugula ezer jaso, koiuntura ekonomiko-finantzieroaren ondorioz.

10.2.5. 2015eko auditoria

DBEBren ekonomia- eta finantza-kudeaketa egokia den aztertzeko, eta Bulegoari esparru ekonomikoan dagozkion xedapenak eta jarraibideak betetzen direla ziurtatzeko, Eusko Jaurlaritzako Kontrol Ekonomikoko Bulegoa ari da kontu-auditoriak urtean behin egiten Agentziari.

Aurkeztu ziren eta auditatu ziren kontuak 2015eko abenduaren 31n bukatutako urteko ekitaldiari zegozkion eta honako dokumentuak aurkeztu ziren:

- Egoeraren txostena
- Ondare-emaizaren eta emaitza ekonomikoaren kontua
- Ondare gordinaren aldaketa-egoera
- Diru-fluxuaren egoera
- Aurrekontuaren likidazioaren egoera
- Memoria, eta memorian honako hauek jasota:
 - Egoeraren txostenari buruzko eta Ondare-emaizaren eta emaitza ekonomikoaren kontuari buruzko azalpen oharrak.
 - Aurrekontu-emaizaren egoera.
 - 2015eko ekitaldiko diruzaintzaren kontua.
